

Karkara

karkara.com

 **Orioko eta Aiako aldizkaria** · 2014ko azaroaren 28a · 356. zenbakia. 26. urtea



Orio modak jantzi zuenekoa

Sarrera guztiak agortuta, harmailak jendez lepo eta desfilean ikusitakoari txalo ugari. Arrakastatsua, bigarrenez, *Fashion Weeka*.

8

Elkarrizketa
Joxe Mari Arruti

13

Adarretatik helduta
Nere Manterola

15

Erreportajea
Euskaraz bizi-bizi

24

Erreportajea
Ulibarri proiektua



sinergia

FISIOTERAPIA

IKERKETA

IBAI ONDO 1, BEHE-OINA WWW.SINERGIA-WEB.COM
TF.: 943 130 577 685 718 595

LESIOAK: BIHURDURAK, TENDINITISAK, ZAITIRATUAK, KONTRAKTURAK, HANKA HANDITUAK, ARTROSIA, ALTERAZIO POSTURALAK, BIZKAR HEZURREKO ARAZOAK, ARNAS GAIXOTASUNAK HAUR ETA HELDUETAN, LESIO NEUROLOGIKOAK, HAURDUNALDIRAKO TRATAMENDU BEREZIAK, ERDITZE ONDORENGO ERREKUPERAZIOA

TRATAMENDUAK: TERAPIA MANUALA, OSTEOPATIA, RPG, MASAJEAK, DRAINATZE LINFATIKOA, ARNAS FISIOTERAPIA, KINESOTAPING-A, PILATES, ABDOMINALETAKO GIMNASIA HIPOPRESIBOA (GAH)



Imanol Illarramendi
Aia (Gipuzkoa)

kortaberri.arotza@hotmail.com

665 70 33 47



Seguros Bilbao

Orioko ordezkaria

Santi Barranco
Telf.: 618581398
Arizaga, 2 - 2º ezkerre
20810 Orío (Gipuzkoa)

e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com



ASHÉ! 943 835 311

Zatoz Santiora sanikolasak gurekin ospatzera!

azkue



Tf: 943 130 438

azkue

arkaitz taberna
orio

- Ogitaratekoak - Pintxoak
- Plater konbinatuak
- Karta

Terraza ederrarekin
Giro ezin hobea

abeslari kalea 6 - 943 831 657

HAUR ETA HELDUENTZAKO JANTZIAK



GARBINE ARRILLAGA
ARITZAGA KALEA, 2 - TEL. 943 13 19 43
WWW.FACEBOOK.COM/ROSADENDARIO

10% DESKONTUA FAMILIA UGARIENTZAT

MENDIZABAL AROZTEGIA

*Neurriko armairuak
eta egurlanak*

943 831 175
645 708 491
mendi@arotzgi.net

Altxerri bidea
Beti-Alai etxea
20810 Aia-Orio

HAIZE & BERRI
itaberna-jateetxea-kafetegia

Plater konbinatuak,
bokatak,
hanburgesak,
razioak,
eguneko menua...

eta etxera eramateko zerbitzua!

Orioko kiraldegian, Erribera 1 943 83 16 23 Asturte goiztetan itzuli

Joana Murgiondo
Aseguru-agentea

C C L
CARASA, CILVETI, LACORT Y CIA, S.A.

Abeslari, 4- 2. esk.
Tfnoa: 943 13 46 07

356

HASI BERTSOTAN

ARRATE ILLARO ETXEBARRIA (DOINUA: ZER DA GAUR DONOSTIAN?)

Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea

20810 Orio

943 83 15 27

karkara@karkara.com

www.karkara.com

Editorea

Karkara taldea
kultur elkarte

Zuzendaria

Lore Berasaluze

Erredaktore burua

Miriam Garcia

Erredakzio taldea

Onintza Aiestaran,
Olatz Artola,
Iñigo Exposito,
Jon Garate,
Iñaki Iturain,
Idurre Lizarralde,
Elizabete Manterola
eta Rikardo Uzkudun

Publizitatea

Idurre Telleria

Ale honetako

kolaboratzaileak

Loreto Aramendi,
Zigor Esoain,
Arrate Illaro
Peru Iparragirre,
Rosi Lazkano,
Nere Manterola,
Igor Salsamendi
eta Jabier Zabaleta

Diseinua

Saioa Perona

Banatzaileak

Nora Pielago eta
Leire Zinkunegi (Orio)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oñati)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.200 aleKARKARAK ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako
esanen edota iritzien erantzukizunik. KARKARAN argitaratu-
takoa berrieman daiteke,
osorik edo zatika, baldin eta
iturria aipatzen bada.

TOKIKOM

LAGUNTZAILEAK



Aiako Udala



Orioko Udala

Eusko Jaurlaritzak
Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabideaGipuzkoako
Foru Aldundia

Urte bukaerari

Urtarrila heltzean,
ahal bada behintzat,
asmoak betetzea
daukagu legetzat.
Noizean behin jasotzen
ditugu ezetzak,
baina ba al dakigu
zer diren guretzat:
espero gabe bete
ditugun ametsak?Udaberria biziz
ahalik gustoren,
estropaden garaia
heltzen da ondoren.
Baina uda giroko
udazken txar honen
ostean nola beti
negua dagoen...
Festak iritsi dira
ohartu baino lehen!Herritar zein lagunez
beteko da plaza
eta giroa ez da
izango eskasa.
Helduen bizipoza
umeen jolasa
gora ta gora Pello
eta Nikolasa,
merezi dugu eta
festak ondo pasa!

Publizitatea kontratatzeko:

Karkara

688 859 682 (Idurre)

karkara@karkara.com



karkara.com

Olentzeroren eta Maridomingiren etorrera

Abenduaren 24ko arratsalderako festa antolatzen ari gara, aurten ere, herriko talde bat. Eta talde irekia izanda, ateak ireki nahi ditugu beste behin ere, egun hori aurrera eramaten laguntza izateko. Festak bere bolumena izan dezan, pertsonaiak behar ditugu: sorginak, artzainak, ttuntturroak, adar-jotzaileak, txalaparta-jotzaileak...

Kultur Etxean Imanoli utzi diogu izena emateko orria. Eta animatu nahi zaituztegu arratsalde goxoa, polita, pertsonaia horien azalean pasatzera.

Izango garelakoan. ■ **OM taldea.**

Itsasoa eta gu

Ez da erraza biak elkarrekin etortzea, baina hala gertatu zitzaigun azaroaren bigarren igandean. Batetik, gai oso interesgarria: industrializazioa eta itsasoaren arteko harremana Orion eta, bestetik, hitza zehatz, zuzen eta erraza duen Xabier Alberdi bezalako hizlaria, esan beharrekoa buelta askorik gabe botatzen dakiena, datu ondo aukeratu eta esanguratsuekin azalpen neurtuak lotuz.

Goizeko 11:00etan genuen hitzordua egina, Etxeluzeren parean. Zirak eta guardasolak eraman genituen, badaezpada ere, euria egingo zuela entzun geniolako eguraldiko esatariari: kale egin zuen iragarpenarekin eta guk asko estimatu, azaroko eguzki xalo eta epelarekin goxo egin genuelako oinez bidea.

Han genuen Xabier zain, gerrian tramankulu xeble bat zeramala, bozgorailu bat, denok hobeto entzuteko kontatu nahi zizkigun gauzak lehenengo geltokian, Etxeluzen. Zubia pasa eta Arinenean izan zen bigarrena, Arratolan hirugarrena eta Frantses-fabrikaren ate aurrean ibilbideko azkena.

Erdi Aroan, Orio sortu zenetik, itsasoa protagonista izan da gure herriko historian, baina ez bakarrik arrantzari lotutako jardunagatik. Hasiera-hasieratik, ontzigintzak Orion aurkitu zuen leku aproposa eta gure itsasadarrean

Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo gure lokalera eskura ekarri (Orioko edo Aiako Kultur Etxean) edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio. KARKARA bere egiten du eskutizak laburtzeko eskubidea.

forma eta neurri askoko ontziak egin dira betidanik. Baleontzi izugarri handiak, Albaolakoak egiten ari diren San Juan bezalakoak, ozeanoa zeharkatzeko gai zirenak, esaterako, edo ala xumeak Sarikolaraino, Aginagaraino zama eramateko eta buelta itsasotik gertuko edo urrutiko portuetara, marearen gora eta beheko erritmoan; arrantzarako batelak, txalupak... mendeetan hori izan zen oriotar askoren ogibidea, arotza izatea, eta munduan onenak izan omen ginen lan horretan. Nahiz eta aspaldi ez diren han entzuten zerren soinuak eta aizkoren kolpeak, mundu haren lekuko dugu Mutiozabalena, Gipuzkoa osoan zutik gertzen den erriberako ontziola bakarra.

Baina ez da hain urruti, guk ezagutu dugu-eta lanean. Entzuten ari ginen hogei bat lagunaren artean, baziren go-goan zutenak nola eraisten ziren ontziolatik egurrezko baporeen kroskoak, marea betean, kamioi batek plaza-tik sokatik tira eginez. Kontu asko entzun genituen entzule-jendea animatu zenean: kofradia zaharrekoak, hango jendearenak, garai bateko arrain-enkanteak... Horrela, Xabierren historiak zabalduetako uberan beselako istorio txikiak ezagutzeko aukea izan genuen.

Segida ederra ikusi du Alberdik gure

historian: egurrezko itsasontzien industriak behera egin zuenean, altzariak egiten hasi ziren ontziolako arotzek, ofizioa ondo baino hobeto ezagutzen zuten langileak bazeuden-eta bertan. Arin y Embil, Muebles Esnal, Muebles Aramendi... gogora ekarri zituen Xabierrek. Zarautzen ere antzeko aldaketa ondo dokumentatua omen du berak. Beste eraikin bakarra ere ba omen dugu Orion, Etxeluze bera. Egur depositoa izateko sortua, erriotik garraiatzen ziren haraino zura preziatuenak, ondo lehortu eta gero, altzariak egiteko. Gaur egun ez da antzekorik gertatzen zutik.

Trenak berrikuntzak ekarri zituen, industria berriak jarri ziren Orion trenbidearen arrastoan XX. mendean, lehengo munduaren gainbehera azkartuko zutenak, baina haietan ere errioko eskuzabal jarraitu zuen berea den bidea eskaintzen, itsasokoa: Frantses-fabrikatik zuzenean jasotzen zuten zama baporeek horretarako eraikiak zituen leiho zabal eta moiladunak erabiliz.

Orio eta errioa izan genituen gaia eta paisaia. Itsasoarekin lotu gaituen ziliborestea da itsasadarra, handik etorri zaizkigu bizia eta bizimodua mendeetan.

Oinez, solasean, batetik bestera egin genuen bidea, dugun ondare aberatsaren berri jasoz, gure burua hobeto ezagutuz.

Bizi-bizi pasa zitzaigun denbora. ■ **Ana G. de Txabarri.**

Orio AE, Italian garaile

Torinon – Italian – jokatzeko den Silver Skiff Trofeoan, 11 kilometroko proba luzea irabazi zuen bere mailan Alberto Etxartek.

Alberto Etxartek, Ibon Urbieta, Jokin Alberdi eta beste hainbatekin elkarteko harrobia prestatzen ari den arraunlari beteranoak, Torinoko Silver Skiff Trofeoan estropada irabazi zuen Men Master B –36-42 urte– beterano mailan. Guztira 519 arraunlarik parte hartu zuten skifean, jubenil mailatik I

beterano mailara arte -75 urte-. Guztia kontuan hartzen dituen sailkapen orokorrean 60. denborarik onena egin zuen Etxartek, eta bere adin-mailan onena izan zen. Zorionak!

■ **OrioArraunean.**

Kontuz! Supermercados DIA

Kontuz, bai, ondo begiratu iraungitze data guztiak, bestela ez duzu zer eginik. Orain dela ia hilabete bat, joan nintzen Orioko DIA supermerkatua eta jogurt pakete bat hartu nuen datari begiratu gabe. Etxean gordetzeko garaian konturatu nintzen data pasata zegoela, eta hurrengo egunean jogurta bueltatzera joan nintzenean, arduradunak esan zidan akaso etxean iraungita nuenarekin aldatu nuela erosi berria. Ez zizkidan aldatu.

Sinetsi ezin nuela geratu nintzen, baina bai, horrela izan zen. Ni bezala

Okerrak zuzentzen

Aurreko KARKARAN, 355. alean egindako akats bat zuzendu nahi dugu. Kataluniari buruz hizketan aritu ginen lau katalanekin eta mahai-inguruko parte-hartzaile baten abizena oker idatzi genuen: Josi Roch idatzi genuen eta Josi Roig da bere abizena. Barkatu okerrak.

Gabonetako alea

KARKAREN ohiko dinamikari jarraituz gero, 357. alearen argitalpen data abenduaren 26a izango litzateke berez. Gabonetako oporren erdian geratzen da egun hori, orde. Horregatik, kaleratze eguna aurreratzea erabaki du KARKARAK. Gabonetako alea abenduaren 19an kaleratuko da.

arreta txarra jaso duten guztiei ardura-dunarekin kontaktuan jartzeko eskatuko nieke -650256772-; jasotako erantzuna salatzen. Esaera zaharrak dioen bezala... *piensa el ladrón que todos son de su condición.* ■ **M.I.**

Hari gara

2015eko hauteskundeetarako herri programa osatzeko parte hartze prozesuaren aurkezpenean egin genuen pasaden azaroak 14ean. Dinamikaren hurrengo saioa abenduak 11ean egingo dugu Aiako Kultur Etxean eta auzoetako batzarren tokia eta data kartelen bidez zehaztuko ditugu hurrengo egunean. ■ **Aiako EH Bildu**



■ ZORIONAK!

Kulturzale aktiboei

Azaroa hilabete hila izaten da; neguko hoztasunak hasten dira eta zaila izaten da herria berotzea, aktibatzea.

Pello Jauregi, Buffalo, San Martinak han eta hemen, David Anaut, Perlak, Xabier Azkue, Fashion Week, Santa Zetilia, Anari, Gure Bazterrak festibala... Aurtengo azaroa bestelakoa izan da, epela tenperaturaz, eta beroa bezain bizia herrian. Agenda bete izan dugu hilabete honetan.

Eskertzekoa da herrian eskaintza kultural zabala eta anitza izatea. Agenda herri ekimenen lanketarekin osatu da: Euskaraz bizi-bizi batetik, Eñaut Marti eta Gratzina Lertxundi bestetik, Orioko Udala, merkataria... eta hori, eskertzekoa izateaz gain pozgarria ere bada.

■ JAIOTAKOAK

- Bixen Elizondo Azkue, Orion, azaroaren 4an.
- Aimar Aldave Ibañez, Orion, urriaren 25ean.
- Bismah Javed Iqbal Bibi, Orion, urriaren 23an.

■ EZKONDUTAKOAK

- Iban Barba Urdangarin eta Iruñe Zubimendi Intxauspe, Orion, urriaren 4an.

■ HILDAKOAK

- Jesus Mari Aiestaran Alkorta, Orion, azaroak 7. 77urte.
- Angel Miera Gordo, Orion, azaroak 12. 77 urte.
- M^a Karmen Zuazolazigorraga Juaristi, Orion, azaroak 13. 77 urte.
- M^a Luisa Carrera Makazaga, Orion, azaroak 14. 72 urte.
- Juan Jose Rezabal Iruretagoiena, Aian, azaroak 18. 81 urte.
- Juan Carrera Goikoetxea, Orion, azaroak 18. 91 urte.

Orioko bake epaitegiaren ordutegia:

Astearte eta ostegunetan
09:00etatik 14:00etara

Tf: 943 83 41 34
Orioko Udaletxea - Herriko Plaza 1

Eskela edo urteurreneko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:
943 83 15 27



Danbolin Musika Eskolako banda Santa Zeziliako kontzertuan



Giro ederra izan zen Ortzalkako sanmartinetan.



Gure Bazterrak jaialdiaren antolatzaileak.

Azaroa, hilabete bizi-bizia

“Hilabete hila izan ohi den honetan, bero-beroa izan da gure herrietako kultur eskaintza”.

Hilabeteko agendak gainezka egiten zuen azaroa hasi zenean. Ikasturte hasiera pasa ondoren, hilabete hila izan ohi den honetan, kultur eskaintza oparoa eta askotarikoa izan dugu gure herrietan.

Musika izan da azaroan ardatz. Xabier Lizasoren piano kontzertuarekin eman genion agurra urriari, eta behin atearik irekita, doinuek eta ahotsek hartu zuten Kultur Etxeko areto nagusia. Buffaloren instrumentuak, musika eskolako ikasle- en erakustaldiak, Anariren sentimendu musikatuak... herri honetan musikarekiko dagoen zaletasunaren testigantzak jaso zituzten aretoko paretek.

Zaletasunak zaletasun eta jaiak jai. San Martinak ospatu zituzten Ortzalka eta Urdaneta auzoetan. Han ere ez zen falta izan bertsoak, ez trikitilaririk, beste gauza askoren artean.

Musikaz bete dira *Gure Bazterrak* ere. Zenbait kontzertu egin dituzte egitasmoa aurkezteko, eta bide batez, jaialdi egunerako itxaronaldia goxatzeko.

Doinu goxoa, gure belarriek aditzen dutena herritarrak euskaraz hitz egitean. Euskara batzordekoek, ordea, badi- tuzte beren kezka. Euskal Herri osotik etorri dira aditu eta euskalzaleak, mahai-inguru eta hitzaldietan Orioko euska- raren erabilerari buruz hausnartzera.

Orio izan zen protagonista *Fashion Week*an ere; egunero gure dendetan ikusten ditugun jantziak eta gure kaleetan ikusten ditugun pertsonak modelo izan ziren egun batez, Pa- risen, Milanen edo New Yorken baleude bezala.

Kiroldegiko ibiltokia kendu eta oholtza muntatzeko garaia heldu da, ordea. Iritsi da, azkenean, hainbatetan aurkeztu di- guten jaialdia. Soinu ekipoak prest, eta baita belarriak ere, etxean bertan Euskal Herrian egiten den musika ederraz go- zatzeko.

MIRIAM GARCIA

Jolastu al duzu inoiz zibarekin?



“Oso ondo dago ziba berriz modan jartzea”

Bai, asko ibiltzen nintzen zibarekin. Egurrezkoak ziren garai hartan; oraingoak desberdinak dira, guk genituenak baino politagoak dira.

Orain berriz modan jarri da zibarekin jolastea; ikusi ditut kalean umeak zibak bota eta bota. Orain egiten dituztenak politak dira, oso koloretsuak eta argiekin. Gureak egurrezkoak ziren, soilak eta margotu gabeak. Gaur egun margotu egiten dituzte egurrezko zibak.

Oso ondo dago jostailu hori bueltan etortzea umeen artera; asko aldatu da jolasteko modua eta pozgarria da haurrak lehengo moduan jolasten ikustea.

Julia Erjibai



“Lehen egun osoa kalean pasatzen genuen jolasean”

Zibarekin eta tabekin ibiltzen ginen txikitan jolasean; baita freskagarrien tapoiekin *futbolean* ere. Eta kaniketan.

Hori guztia galdu egin da; egungo umeek ez dakite jolasean. Hainbeste makina eta hainbeste istorio... Lehen egun osoa kalean pasatzen genuen, jolasean. Gaur egun ez dute ia aurpegia pantailatik kentzen, eta oso gazte hasten dira horrela, gainera.

Festetan ziba lehiaketa egingo dute eta oso ongi iruditzen zait, joku hauek berreskuratzea oso polita da. Umeak kalera atera eta garai batean nola jolasten genuen ikastea oso positiboa eta beharrezkoa dela iruditzen zait.

Raquel Txitxarro



“Jostailu ez-sexistenen artean kokatuko nuke ziba”

Bai, txikitan. Boladaka jolasten genuen, moda etortzen zenean. Egurrezko zibak erabiltzen genituen, goiko aldean gorritz margotutakoak. Guk errotulagailuarekin margotzen genituen, eta sokari 25 pezetako txanpona lotzen genion. Oso ondo pasatzen genuen; norbere burua trebatzen genuen bakarrik jokatzuz, eta taldean ere gustura aritzen ginen.

Oso ongi iruditzen zait berriz ere modan egotea, oso jolas ludikoa da-eta. Jostailu ez-sexistenen artean kokatuko nuke ziba, neskak eta mutilak gerturatzten dituen jostailua baita. Festetako ziba lehiaketa primerakoa iruditzen zait. Ziba jokoa sustatu behar da.

Aizpea Esnaola

BODEGAS

Gailur

01307 BAYOS de EBRO
Tel./Fax 945 60 91 58
www.bodegasgailur.com

Arabar Enrixa

ZUDUGARAI

Gelariako Txakolina

Tel. 943 83 03 86
Fax 943 83 59 52
bakolizudugarai@euskalnet.net
www.bakolizudugarai.com

KAIUA
taberna

**Tipi-tapa, tipi-tapa, kaiuara
bokata ederrak jatera**

Anibarko portua 35, behea
Tf.: 943 840 060



Bost urte daramatza Joxe Maria Arruti oriotarrak pilota epaile lanetan. KARKARA

“Gogoa beti izan dut; emaztearen animoei esker eman nuen pausoa”

Joxe Mari Arruti

Pilota-epailea

Frontoi askotan izandakoa da Joxe Mari Arruti. Harmailetatik pilota ikus-tea asko gustatzen zaion arren, beste ikuspuntu batetik bizi du kirol hori duela bost urtetik hona. Pilota epailea da.

OLATZ ARTOLA

Aitak sartu zion pilotaren harra. Ordutikugarra hauspotu egin da, zaletasuna handitu. Duela bost urtetik jo eta su dabil epaile lanetan; afizionatuetan, baita txapelketako partidatan ere.

Pilotazalea izango zara betidanik.

Aitari asko gustatzen zitzaion, eta anaia eta bion afizioa ere bada. Gaztetan herri mailan ibiltzen nintzen.

Pilotalekuetan ibilitakoa.

Familian joaten ginen, bai.

Harmailetan egotetik epaile lanetara. Noiz eta nola?

Orain dela bost urteko kontua da. Gogoia beti izan dut, baina hiru seme dauzkat eta emaztea ez da pilotazalea. Berak animatu ninduen, eta proposamen horri nola esan, bada, ezetz! Segituan joan nintzen izena ematera.

Zein dira eman beharreko pausoak?

Gipuzkoako federazioak eta epaileen federazioak, elkarrekin, ikastaro bat eskaintzen dute. Behin ikasi beharrekoak ikasita azterketa bat egiten duzu. Gaindituz gero herri mailako epaile bihurtzen zara; epaile profesionala izateko beste azterketa bat egin behar da Euskadiko federazioan.

Zenbat denbora behar izan duzu batetik bestera pasatzeko?

Bi hilabete.

Beti pilotaleku berean egoten al zara?

Gipuzkoa mailan ibiltzen gara. Koordinatzaile bat daukagu eta berak galdetzen digu ea libre daukagu; ezin badugu, ez dago arazorik. Borondatezkoa da.

Guztiz boluntarioa?

Guztiz. Lana da niretzat, borondatez egiten dudana.

Dena den, izango da berezia egiten zaizun pilotalekuren bat.

Bereziki gustatzen zaidana Eibarko Astelena pilotalekua da, bai epaile lanetarako, baita harmailetan egoteko ere.

Ez da paper erraza epailearena, askotan bata edo bestea kontra izaten duzue.

Beti dago gure aurka dagoen norbait. Pilotariak, gehienetan, errespetatu egiten gaituzte. Atzean ditugun asko eta asko apustu zaleak dira eta berek nahi dutena ikusten dute. Horiek egiten dute oihu gehien. Guk ahal duguna ikusten dugu.

Apustu asko egiten da oraindik?

Lehengo aldean gutxi, krisiarekin asko jaitsi da. Nikez dut sekula apusturik egin, hortaz, ez dakit zer prezioan ibiltzen diren.

Ikasi egiten da ez entzunarena egiten?

Aurka egiteak ez du ezertarako ere balio, afizioz gabilta eta liskarrak edukitzeak ez digu ezer onik ekarriko. Hobe da pazientzia izatea, isiltzea, eta partidarekin aurrera jarraitzea.

Halere, ez da erraza izango.

Gogorra da, baina zu ahalik eta lan hoberena egitera zoaz. Akatsak guztiok egiten ditugu. Hanka sartzen dugunean, partida amaitu bezain pronto barkamena eskatzen dugu eta kitto.

Bost urte daramatzazu honetan, gustura zabiltzan seinale.

Oso gustura. 75 epailetatik zazpi gara txapelketako partidak egiten ditugunak. Horien artean egoteak asko poztzen nau; ohore bat da niretzat.

“75 epailetatik zazpi gara txapelketako partidatan lan egiten dugunak. Horien artean egoteak asko poztzen nau.”




Joxe Mari Arruti Orioko frontoian. KARKARA



ASADOR XIXARIO
Eusko Gudarien Kalea, 2
Tel. 943 830 019 - ORIO

**ZABALIK!
PROBATU
EZAZU!**

**PIZZERIA
KALETA**



**ARRANTZALE KALEA, 10
TELEFONOA: 943 24 89 46**

ARISTERRAZU
jatetxea



**Andatza auzoa AIA
Tel. 943 83 45 21**

URAITZ
Lurrindegia
jantzi-sagarriak

Endaia, 3 Tfnoa: 943 83 18 97

LURDES
ARRAINDEGIA

**Eusko Gudari, 4
Tel. 943 83 00 24**



GARMENDIA
INMOBILIARIA - AHOLKULARITZA - ASEGURUAK

Ibai Ondo, 1
Tel.: 943 834 466 - Fax: 943 132 941

azkue
karrozeria



**Ubegun industrialdea, 7
20809 Aia-Orio
Tf/fax: 943 83 51 86
carroceriasazkue@hotmail.com**

PATXI OLIDEN

Hemengo haragia.
Ettxeko produktuak: tripaki, odolki,
txekorria, txorizo, kroketak...

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10

XS
arkitekтура
herrikobarra 6, zarautz

eraikuntza zerbitzuak
errehabilitazioak
obrak
proiektuak
txostenak
ITE-ak
eraikinen mantenua

Borja Agirresarobe Lopetegi
635 731 722

**Orioko
Herri
Ikastola**

Guraso Kooperatiba
ABESLARI KALEA, 8
TEL: 943 83 47 04
FAX: 943 13 09 38
orio@ikastola.net
www.oriokoikastola.net

Zaragueta
Herri Eskola Orio

telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezkuntza.net

Gabon
TABERNA

- ✓ Pintxoak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Ogitartekoak

943 83 06 09

Maider Arrillaga Sarasola · 138. Kol. zenb.
Arrantzale 63 · 20810 · Orio · Gipuzkoa
Tel. 943 575 361

oinarri
PODOLOGIA ZENTROA

Maite zaitut, Orio

Elkarrizketa luze baterako gaia izan zen hura, baina Orion elkar zaintzen duzue izan zen gehien markatu ninduen esaldia. Zer pentsatua eman zidan.

Baina ez da beti horrela izan. Izan dira hain gustuko ez zintudan garaiak ere. Txikitan gaizki pasatzen nuen zu, *nongoa zara ba?* galderaren aurrean. Batzuetan *Felipe Arostegiren biloba* esaten nuen. Beste batzuetan *Xanti Txagaren alaba* eta bestetan, berriz, *Milagros Arostegiren alaba*. Hirurak ziren erantzun zuzenak, baina ni *zein maite duzu gehiago?* erantzun banu bezala geratzen nintzen. Baten hautua egiteak besteekin ez akordatzea balekar bezala zen niretzat.

Ordu txikietan etxeratzen nintzeneko garaietan ere ez zintudan hain gustuko, Orio. Gortina atzetik norbait zelatan somatzen genuenean, *ze beidatzen!* eta horrelakoak esaten genituen harro. Izaten ziren *eztarri hori nola daukazun, zertan ibili ote zeate* komentarioak ere etxetik kanpo. Eta kritika merke haiek ere ez nituen oso gustuko.

Etiketatzeko duzun joera ere hor dago. *Zu Zaraguetakoa, ni Ikastolakoa, hau Bildukoa eta hura PSOEkoa, langilea, alferra...*

Zurekiko nuen ikuspegia aldatzea pasarte batzuen ondorioa izan zen. Bikote gazte asko etorri da azken aldian gurera eta haietako bati hona zerk ekarri zuen galdeztera ausartu nintzen parkean. Elkarrizketa luze baterako gaia izan zen hura baina *Orion elkar zaintzen duzue* izan zen gehien markatu ninduen esaldia. Zer pentsatua eman zidan.

Handik gutxira gure seme zaharrena *Uko* parkean galdu zen. Baratzek ikustera jaitsi ginen gu eta Manex despistatu egin zen. Gizon bati esan zion galdu egin zela. Biak hizketan egon ondoren tirolinako parkean ote geunden begiratzera joatea erabaki zuten. Hara zihoazela gure lagun batekin gurutzatu ziren. Inigo hondartza aldera zihoan baina *Zer egiten ote du Manexek gizon ezezagun horrekin* pentsatu omen zuen. Begira egon ondoren Inigok buelta eman eta tirolinako parkeraino jarraitu zituen. Han laguntza eskaintzera hurreratu zitzairen eta bi helduak haurra zaindu nahi horretan bestea fidakaitz begiratzen zuten momentu bat egon omen zen.

Beste lagun batek etxean ingelesak izan zituen uda batean. Haiei aiton-amonak nola tratatzen genituen gustatu omen zitzairen. Farmazian sumatu omen zuten begirune hori gehienbat. Jendeak nola itxaroten zuen aiton-amonak esplikazio amaiezinak ematen zituzten bitartean... Klean aiton-amonak agurtzeko genuen joera ere ikaragarri gustatu omen zitzairen.

Kanpotik esan behar izan zidaten zeinen ederra zaren. Egia da. Baina poliki poliki joan naiz ikuspegia aldatzen eta gaur egun, harro esan dezaket, ez zintuzkedala ezerगतik aldatuko. Kontrol soziala badagoen arren, babes soziala sumatzen dudala nik. Eta lasai esaten diot nire semeari zu, *nongoa zara ba?* galderaren aurrean ez dagoela maleziarik, jendeak kokatu besterik ez duela nahi aurrean duen pertsona hori. Eta lasai esateko *Xanti Txagaren biloba* dela inorekin kale egingo duen beldurrik izan gabe.



Nere Manterola



Lore Berasaluze

Askatu ditzagun kaiolako txoriak

Ederra parajeak, alajaina! Goitik, behetik, ezkerretik ala eskuinetik begiratu, ikuspegi ederra dute mendiek; usain gozoa belar eta loreek; kolore bero eta hotzen kontraste ikusgarria hostoek; askatasun ukitua haize freskoaren bultzadak.

Lagunen konpainia, adiskideen arteko jolasak, kantuak... Hau irakurrita, Heidiren mendietan murgilduta izango da irakurleren bat baino gehiago, aitonaren etxola alboan, Pello eta Elurtxo noiz etorriko zain.

Kaiolako txoriari, ordea, alper alperrik zaizkio ikuspegiok.

Leihu albora etorriko zaio txantxangorriren bat eta bere bidai ederrak kontatuko dizkio: hango eta hemengo erretan hartu duela bainua; luma ederdun txepetxa ezagutu duela eta elkarrekin habia egitekotan direla: gaztetan elkarrekin bisitatzen zuten zuhaitza behera bota dutela eta haren orde, giza etxe bat altxa dutela; itsusia dela, baina hotz egiten duenean, teilatupean goxo egoten dela... eta kaiolako-

akezin irudikatu lagunak esandakoa, baina gustura dago, gutxienez, laguna etorri zaiolako eta norekin hitz egin baduelako.

Biharamunean ez zaio inor etorri. Haizea firin-farin dabil eta hegaldiak arriskutsuak izaten dira egun horietan. Bitartean, bolada horiek mendi usaina ekarriko ote dioten pentsatzeari ekin dio. Dena den, badaki esperantza faltsuak direla. Badaki baita ere, bihar ez bada etzi, beste lagun bat etorriko zaiola kontuak egitera.

Utz dezatela libre! Joan dadila hegan mendi tontor batetik bestera! Bizi ditzala bere abentura propioak! Halakorik merezi ez duena zigortzeko abildadea badugu gizakiok, kontxo!

Txori gaixoa! Utz dezatela libre! Joan dadila hegan mendi tontor batetik bestera! Bizi ditzala bere abentura propioak! Halakorik merezi ez duena zigortzeko abildadea badugu gizakiok, kontxo! Pirritx, Po-

rrotx eta Marimototsek horrenbeste maite dituzten hauts majikoak hartu –patrikatik, txilborretik...– eta eska diezaion dagokionari txoritxo askatzeko.

Eta txoria izan orde, gizakia denean? Eskaria aldatuko al duzu?

Katu Horia
albaitarietza klinika

ESTROPALARI, 10
20810 ORIO
tel. 943 11 66 99

Larrialdia
668 89 11 29

www.katuhoria.com

libe
dietetika
elkadura aholkularitza

eusko gudariak 35 :: ORIO
[sarrera Arrantzale kaleak]

943 53 64 94 :: 697 23 86 56
libegarmendia@gmail.com



Rosi Lazkano

Erronka berriei helduz

Eta orain, ia hirurogei urte ditudanean, euskaraz idazten ikasi behar dudala okurritu zait... Beno, ez, ikastea gehiegi esatea izango da: pixka bat probatu, ezagutu eta saltseatu.



ezurra dirudien arren, nahi dudanari buruz idazteko esan didatenean, duda mordoia sentitu dut. Gai bereziez edo zerbait potoloaz hitz egin beharko banu bezala idazten hasteko.

Egunero bazkari-afaritarako zer jarri pentsatzek ematen dizkidanak baino gehiago.

Ohitura falta izango da. Nik idazten aspaldi ikasi nuen, gazteleraz; 14 urte bete baino lehenago utzi nion eskolara joateari.

Gogoratzen dut umea nintzela, nere ahizpa zaharragoak egunero-egunero soldadutzan zuen senargaiari gutunak idazten zizkiola; baina ni, halabeharrez, soldadutza egindako mutilarekin hasi nintzen harremanetan, eta gutunik idatzi beharrik ez. Hortik atera kontuak.

Eta orain, ia 60 urte ditudanean, euskaraz idazten ikasi behar dudala okurritu zait... Beno, ez, ikastea gehiegi esatea izango da agian; pixka bat probatu, ezagutu eta saltseatu nahi dut.

Niri gertatzen zaidana da gauza gehienek tentazioa pizten didatela: norbait korrika ikusteak, dantza ikastaroak, korian kantatzeak, panderoa jotzeak... Guraso edo etxekoandre izateak portaera mota bat ekartzen duela pentsatzen denbora dezente ematen dudala izango da, akaso; eta egin gabe utzi ditudan gauza piloak egiteko beranduegi dela. Eta urteek, erretiroaz aparte, erakutsi didate egiten dudana edo ez dudana esaten dutenak baino garrantzia handiagoa duela nola sentitzen naizen.

Azkenean, erronka gisa hartzen dut, urteetan geure buruari jarritako mugak gainditzea. Lehenengo aldiak beti dira zailak. Errikotxiara aurrenengo aldiz joan nintzenean ate ondoan egon nintzen dudan, sartu edo bueltan etxera itzuli pentsatzen. Gaur ez dut damu handirik barrura sartu izanaz.

Paper zuri baten aurrean jarri eta burura datorkidana idazteak adina beldur ematen dit testu hau etxeko pantailatik atera eta oriotar guztien bistan egongo dela jakiteak. Idazten ari naizena idaztea terapia moduko zerbait izan da niretzat: barrua hustu, idazteko ohitura hartu... Baina gero, zenbat duda! Hau KARKARARAKO modukoa izango ote da? Irakurleak erakarri edo uxatu egingo ditut? Emakumeok gurekin ditugun segurtasun-gabeziak.

Dena ondo egin beharko bagenu bezala.





4 kiloko urraburua

Etxetik gertu, herrian bertan, arrantzatu zuen urraburua. Zalea da Borja Egiguren, maiz irteten da iluntzetan arrainetara. Sukaldean aritzea ere asko gustatzen zaio eta bi zaletasunak askotan uztartzen ditu; arrantzan ibili, eta, ondoren, harrapatutakoa afaldu.

Oraingo honetan ez zuen oso urrutira joan behar izan urraburua atzemateko, Orioko hondartzan harrapatu baitzuen. 4 kilo inguruko pisua zuen arrainak eta ur azpian arrantzatu zuen. Horrekin ere, ziurrenik, afari goxo-goxoa prestatu zuen Egigurenek.

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri KARKARARA eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk eka-rritakoa dela jarrita.

LORETXU JATETXEA

Eusko Gudari, 18 Telf: 943 83 00 07

Kinkiladenda- Ume arropa

argine.

www.lasonet.com/argine
Tel. 943 13 48 89

75eko DESKONTUA FAMILIA
UGARIEN TXARTELAREKIN

ITZALA

kartetan jokatzeko
apropositu

tel. 943 83 12 59



Biharko Orio euskalduna pentsatzen

Orioko Udaleko Euskara batzordeak gogoeta egin du urrian eta azaroan, **biharko Orio euskaldunari buruz**. Alde batetik, datozen lau urteetarako plan estrategikoa landu du bilera irekietan eta, bestetik, jardunaldia antolatu du.

TESTUA: J. ZABALETA, M. GARCIA ETA O. ARTOLA
ARGAZKIAK: KARKARA

Aldian behin, komeni izaten da eguneroko martxa pixka bat geratu eta denbora-tarte bat hartzea inguruari erreparatzeko: atzera begiratu eta egingakoa aztertu, batetik; eta, bestetik, aurrera begira jarri eta bidea nondik nora egin nahi dugun pentsatu. Horixe egin dugu, urrian eta azaroan, euskalgintzan gabiltzan Udaleko eta herriko eragileek.

2014-2017 plan estrategikoa

Euskararen alorrean datozen urteotan Udalak zer egin nahi duen zehazten du plan estrategikoak: zein helburu bete nahi dituen, zein lehentasun jarriko dituen, zein ekintza aurreikusten dituen helburu eta lehentasun horiek betetzeko...

Udaleko Euskara Zerbitzuak landutako zirriborro batean oinarrituta, Orioko euskalgintzako eragileek 2014-2017 aldirako plan estrategikoaren dokumentua osatu zuten urrian egindako bi bilera irekietan. Dokumentuak honako hau bil-tzen du:

- Euskarak Orion gaur egun duen egoeraren diagnosi orokorra eta alorrez alorrekoa, ahulguneak eta indarguneak sein-alatuz.
- Datozen lau urteetarako lehentasunak, alorrez alor.
- Datozen lau urteetarako ekintzen proposamena.

Dokumentu hori, ondoren, Euskara batzordeak aztertu du eta aho batez onartu du. Hortaz, hurrengo pausoa udalbatza-rrak onartzea eta indarrean jartzea izango da. Behin onartu-ta dagoenean, dokumentua herritarren eskura izango da udalaren webgunean eta, horrez gain, hainbat kopia banatu-ko dira herriko elkarte eta taldeen artean.



PELLO JAUREGI: JARRERA ETA PORTAERA

Euskalgintzan zer da garrantzitsuagoa jarrera ala portaera?

Askotan pentsatzen dugu lehendabizi jarreraren eragin behar dugula eta gero jokaera aldatu. Nik uste dut interesgarriagoa dela alderantzizkoa. Kanpoko egoerak behartzen banau era batera jokatzeko, azkenean nire barruko jarrera moldatu egingo da eta ohitu egingo da.

Orion helduak dira euskara gutxiago erabiltzen dutenak. Helduen artean jende asko dago euskara ez dakiena, eta komunikazio-jarioa gelditu egiten da. Historikoki euskaldunok komunikazioa izateko erdarara pasatu gara. Ez gara ohitu ulertu baina jakin ez arren, euskaraz hitz egitera bestearekin. Deserosotasuna gainditu behar da.

Nola eragin dezakegu helduetan?

Talde naturalak dira eragiteko modu hoberenak: elkarteak, familiak, kuadrila... eta hor eragiteko erabaki kolektiboak behar dira, ez indibidualak. Taldean errazagoa da guztia, horregatik jartzen dut fokua horretan. Ereku kolektiboak ereku legítimo bihurtu behar dugu.

Behartzea eragiteko modu bat da?

Behartzeko modu formala eta informala daude. Formala da erakunde batek esaten duenean guztiok euskaraz egin behar dugula. Informala da bestea euskara erabiltzea behartzea ni euskaraz ari naizelako.

Hori beste tokietan gertatzen da, baina hemen ez.

Euskaldunok deseroso sentitzen gara hori egitean, edukazio txarrekoa delakoan. Mezuak, diskurtsoak zabaltzen hasi behar dugu, jokaera legítimo bihurtzeko.



***Euskaraz bizi-bizi* jardunaldia**

Azaroan *Euskaraz bizi-bizi* jardunaldia antolatu du Udaleko Euskara batzordeak, herritarren kontzientzia linguistikoa eragiteko egitasmoaren barruan. Jardunaldiaren bidez, herriko euskaldunak nola aktibatu aztertu nahi izan du Udalak eta, bide batez, gogoeta egin biharko Orio euskaldunaz eta horra iristeko bideaz.

Udalak bi urte daramatza *Euskaraz bizi-bizi* egitasmoa bultzatzen, honako helburu nagusiarekin: oriotarren kontzientzia linguistikoa eragitea, euskaraz bizitzeko aukera egin dezaten. Ahalegin horren barruan antolatu du jardunaldia Euskara batzordeak eta hainbat hitzaldi eta mahai-inguru izan dira Salatxo aretoan zein Kultur Etxean.

2011ko jardunaldia: Orio. Euskarazko arnasgunea sendotu

Ez da aurreneko aldia Orion horrelako jardunaldi bat antolatzen dena: 2011ko otsailean *Orio. Euskarazko arnasgunea sendotu* jardunaldia antolatu zuen Euskara batzordeak kultur etxean. Jardunaldi haren ondorio nagusietako bat izan zen nahitaezkoa dugula, gaur egungo Orion, herritarren kontzientzia linguistikoa eragitea, euskaraz bizitzeko hautu kontzientea egin dezaten. Bide horretan sakontzeko antolatu du Euskara batzordeak aurtengo jardunaldia.

Pello Jauregiren hitzaldi emankorra

Pello Jauregiren hitzaldiak ireki zuen *Euskaraz bizi-bizi* jardunaldia eta oso interesgarria gertatu zen, ikuspegi desberdin bat eman zuelako euskararen erabilera sustatzeko prozesuei buruz. Pelloren gogoetak ez ziren ezagunak han bildutako askorentzat eta oso hitzaldi emankorra izan zen, besteak



JARDUNALDIA



Bideoak. Hitzaldi eta mahai-inguru guztiak biltzen dituen albisteak.



Laburpena. Pello Jauregiren hitzaldiaren laburpena komunitatean.



DABID ANAUT: OSPELETIK EGUTERARA

Euskararen ibilbidea ospeletik eguterarakoa al da?

Euskara oso egoera ilunean zegoen, eta euskalgintzak eta euskaldunek lortu dute euskara argitara ekartzea. Zapalkuntza egoera batean zegoen euskara, oso azpiratua, eta ospel horretatik lortu da -neurri batean- eguterara ekartzera.

Egungo egoera ez da guztiz argitsua...

Zapalkuntzaz ari garenean ez gara soilik frankismoaz ari, euskararen zapalkuntza lehenagotik hasi zen eta geroztik urteak pasa diren arren, ez da amaitu.

Iraganak eragina du orainaldian?

Gaurko euskararen egoera ezingo genuke ongi ulertu kontuan izan gabe euskarari eta euskaldunei gertatu zaien guztia, gertatu zitzaigunaren ondorioz baitauekagu, besteak beste, gaurko egoera.

Etorkizunera begira baliagarria al da jakintza hori izatea?

Aurrera begira ere onbide bat bilatu behar dugu gatazka linguistiko horientzat, eta horretarako baliagarria da jakintza hori izatea. Ulertzeko aurreko guztia jakin behar da, eta, gainera, politikak erabakitzeke nolabaiteko errepazio hori ere kontuan izan behar da.

Hori da aurrera segi eta hobetzeko gako bakarra?

Niri gustatuko litzaidake gauzak sinpleagoak izatea eta erabakitzea nondik joko dugun. Euskarak, gure zoritxarrerako, denetik behar du. Gauza normatiboak, gauza atseginak eta ilusioa eragiten dutenak, kontzientziari astindua eman behar zaio.... gauza asko behar ditu euskarak eta ez gaude bata edo bestea alboratzeko moduan.

beste ekintzarako bide berriak seinalatu zituelako.

Hitzaldian metodologia bat proposatu zuen Pello Jauregik, talde naturaletan –koadrila, kirol elkarte, administrazio...– euskararen erabilera sustatzeko. Bertan geundenak segituan hasi ginen imajinatzen Orioko zein taldetan aplika daitekeen metodologia hori eta proposamenak ez ziren falta.

Metodologia: euskara erabiltzeko neurri adostuak

Jendea, normalean egokitu egiten da bere ingurura. Hori da gehien-gehienok egiten duguna, joera naturala. Gaztelaniaz eta euskaraz, bietara baldin badakigu, inguruaren arabera arituko gara hizkuntza batean ala bestean: gure inguruan denek gaztelaniaz egiten badute, guk ere hala egingo dugu; denek euskaraz egiten badute, guk ere berdin.

Nola erabili guztiok daukagun egokitzeko joera hori euskararen alde? Nola erabili hizkuntza portaerak aldatzeko? Galdera horri erantzuteko, hainbat esperientzia bideratu ditu Pello Jauregik, euskalgintzako beste eragile batzuekin elkarlanean eta emaitzak oso interesgarriak dira. Funtsean, esperientzia horietan erabili den metodologia hau da:

- Talde natural batean –izan daiteke lantegi bat, koadrila bat, kirol elkarte bat...– planteatzen da ea taldea prest dagoen euskararen erabilera zabaltzeko proiektu batean parte hartzeko, epe mugatu batean –esan dezagun, bi hilabete–. Baldintza ezinbestekoa da taldeko guztiak ulertu behar dutela euskara, nahiz hitz egiteko zailtasunak izan.

- Prest badaude, beren artean aukeratzen dituzte 2 edo 3 lagun –taldearen tamainaren arabera, gehiago izan daitezke–, bi hilabetez taldeko guztiak euskara hutsean arituko direnak. Taldeak erabakitzen du, bozketaz, zein izango diren 2-3 lagun horiek.

- Aukeratutako lagun horiek beti egingo diete euskaraz taldekideei eta taldekideek, berriz, nahi dutena egingo dute: nahi duenak euskaraz erantzungo du, nahi duenak gaztelaniaz... libre.

Garrantzizkoa da, diseinu horretan, taldeko edozein izan daitekeela –*euskaldun hutsaren*– papera egingo duena –EUSLE esaten dio pertsona horri Pello Jauregik–, ez

“Ulertu bai baina hitz egiten ez duenarekin euskaraz jardutera ez gara ohitu”.

PELLO JAUREGI

“Gaurko egoera ezingo genuke ulertu jakin gabe euskarari gertatu zion guztia”.

DAVID ANAUT

“Limurtzea eta behartzea orekatu behar dira. Nik uste, bietatik behar dela”.

ZIGOR ETXEBURUA

“Euskararen bizirautea, nire ustez, faktore ideologikoak bakarrik baldintzatzen du”.

FREDI PAIA

HIZTUNAK AKTIBATZEN

Euskaraz egiteko motibazioa bultzatzeko bi estrategia nagusi proposatu izan dira: sedukzioa eragitea eta premia sortzea. Zuek biak uztartzea posible dela uste duzue?

Ana Esther Furundarena: Niri atseginagoa iruditzen zait sedukzioaren bidea. Iruditzen zait jendea konkistatu egin behar dela. Gauzak borondatez egin behar dira, sentimenduetatik eta emozioetatik. Horra ailegatzeko modu bakarrenetarikoa seduzitzea edo konbentzitzea dela uste dut. Nahi duenean edo prest dagoenean eman behar du pausoa jendeak. Eta guk, zer egin behar dugu? Hori gertatzeko eragin, behin eta berriz, aukerak ematen eta seduzitzen.

Zigor Etxeburua: Behartu egin behar da, nik hori argi daukat; hizkuntza guztiak behartzen dira. Nik uste dut kasu batzuetan –zerbitzu publikoetan, adibidez– behartu egin behar dela. Hori bai, nola behartuko dugu inposizioa izan gabe? Lagundu egin behar da. Limurtzea eta beharkizuna orekatu egin behar dira. Nik ez dut uste bat ala bestea denik, bietatik behar da.

Ana Esther Furundarena: Batak ez du bestea kentzen. Pertsonak bere intimitatean nola egin du hautu hori? Txip hori da behar duguna, baina bestea ere behar da.

Zigor Etxeburua: Eta euskararen maitaleak ere behar dira, kontzientzia kulturalagoa dutenak, erroekin bat doazenak. Hizkuntza baloreak bezala apreziatzen dutenak ere behar dira. Ez dut ezer kentzen, baizik eta bat gehiago jarri.



du zertan 'euskaltzaleena' izan. Pertsona horrek taldearen erabakiaren ondorioz egiten du beti euskaraz; hau da, taldearen babes osoa dauka horrela jokatzeko, taldeak jarri du zeregin horretan, eta, beraz, lasai arraio jardun daiteke, inolako karga pertsonalirik hartu gabe. Inportantea da hori. Taldeak jarri du horretara eta horrek legitimitate handia ematen dio, eta karga arindu. Metodologia horren bidez, funtsean, egin duguna hau da: hizkuntza-arau bat sortu dugu eta horri babes soziala eman diogu, gatazkak sahiesteko.

Hortik aurrera, beti gertatzen dena gertatuko da: taldeki-deak egoera berrira egokituko dira. Pertsona bat edo talde bat euskaraz funtzionatzen hasten bada, inguruko jendea horretara egokituko da. Alegia, ez dira pasako euskaraz egitea bat-batean sekulako motibazioa sortu zaielako, baizik-eta, modu naturalean, egoera normala hori bihurtu delako. Inguru horretan euskaraz egiten bada, berak egokitu egingo dira. Beste(ar)en erabilera izango dute akuilu.

Orion aplikatzea aztergai

Udaleko ordezkariak potentzialitate handia ikusi diote metodologia honi eta dagoeneko ari dira aztertzen zein talde eta testuingurutan aplika daitekeen Orion. Datorren urtearen hasieran Pello Jauregirekin biltzekotan dira, neurri adostuen metodologia hori Orion non aplika daitekeen aztertzeko eta esku-hartze programa bat –edo batzuk– diseinatzeko.

Erakusketa eta mahai-inguruak

Jardunaldiaren barruan, 'Euskara, ospeletik eguterara' erakusketa ere izan dugu Orion eta, haren inauguraziorako, Dabid Anaut etorri zen, euskarak historikoki jasan duen zapalkuntzari buruz hitz egitera.

Horrez gain, hiru mahai-inguru ere izan dira: bata *Hiztunak nola aktibatu?* galderari erantzuteko, Jaurlaritzako, Al-
dundiko eta Gabiriako Udaleko ordezkariekin; bestea, *Nola ikusten gaituzte arnasguneetakoak ez diren euskaldunek?* galderaren inguruan, Fredi Paia, Maite Inda eta Asier Lafuenterekin; eta azkena, joan den asteazkenean, herriko eragileekin.

NOLA IKUSTEN GAITUZTE?

O rion euskaraz egitea bezain naturala da gaztelaniaz egitea. Hemen hizkuntzaren transmisioa naturalagoa den arren, kalean biak oso natural egiten dira. Nola indartu dezakegu herritarraren hautua?

Fredi Paia: Tentsioa dagoen inguruneetan, euskara gora doa. Euskaldunaren izaera psikologikoa da; zenbat eta zapalduago izan zen euskara hegoaldean, erantzuna hobe izan da eta asko berreskuratu dugu. Euskararen bizirautea, nire ustez, faktore ideologikoak bakarrik baldintzatzen du. Funtzionalki badakigunean erdararen egoera diglosiko batean gaudela, nik ez dut ikusten ideologizazioa ez den beste biderik.

Asier Lafuente: Tentsio hori mantentzeko joera handia daukagu. Umeek, adibidez, euskara badakite; baina noiz erabili behar dute? Badakigu norekin hitz egin dezaketen, baina ulertzen ez dituztenean, zer? Errotik moztu? Barrutik hori ateratzen zaigu, baina ez dakit hori pedagogikoena den eta instituzio mailan ere derrigortze hori erabili daitekeen jendeak euskaraz egiteko...

Maite Inda: Nik uste dut erronka handia dela zuek daukazuena. Zuek nola asmatzeak, zirt edo zart eginaraziko digu atzetik goazenoi; izan ere, zuek gure futurologia zarete. Zuek zaudete gu inoiz iritsiko garen egoeran; zuek ezagutza handia izanda, erabilera bultzatzeko hartzen duzuen erabakiak Euskal Herriari ekarpen handia egin diezaioke.

Ehun metro karratuko erakusketa

Ortopedia Zarautz

Herriko barra kalea, 11-14. Zarautz.



Ortopedia Zarautz-ek 15 urte daramatza bailarako biztanleen beharrei erantzuten ortoprotesien teknikari den Carmen Ormazabalaren gidaritzapean. Abenduaren 6tik aurrera, erakusgai izango dituzte beren produktuak erakusketa berrituan.

Zer produktusaltzen dituzue?

Osasunarekin, autonomia pertsonalarekin eta bizi kalitatearen hobekuntzarekin lotutako produktuak saltzen ditugu. Osasun Sailarekin hitzarmena dugu eta, ondorioz, hainbat produkturentzako diru-laguntza eskaerak izapidetzen ditugu.

Produktu hauek ditugu: mugikortasunean laguntzekoak, garbitasunera-koak, ohean dauden edo mugikortasun arazoak dituzten pertsonen zaintzarakoak, etxearen egokitapenerakoak, eskailera igotzeko eta jaisteko aparatuak, oinetakoak, elikagai osasuntsuak eta ekologikoak...

Zer da bezeroek gehien erosten dutena?

Gurpildun aulkiak, ohe artikulatuak, taka-takak, inkontinentziarako babesgarriak, leku-alaketak egiteko garbiak, bainu-ontzira sartzen laguntzen duten eserlekuak, dutxarako eserlekuak, arrapalak eta besaulki jasotzaileak dira, besteak beste, gehien eskatzen dituztenak.

Zer berrikuntza eskaintzen duzue?

Erakusketa-lokal bat inauguratuko dugu abenduaren 6an, ohiko dendatik 50 metrora. Bi lokaletan egongo gara



aurrerantzean. Betiko lokalean produktu txikiak egongo dira: oinetakoak, elikadurarako produktu ekologikoak, errehabilitaziorako produktuak, protesiak, zaintza-produktuak...

Correosen aurrean dugun erakusketa-lokalean, bestalde, ohiko etxe bat irudikatu dugu, logela, bainu-gela, sukalde eta abarrek. Espazio horietan mugikortasun arazoan edo bestelako mugen ondorioz sortzen diren zailtasunei aurre egiten laguntzen duten produktuak jarri ditugu bezeroen esku.

Nondik sortu da erakusketa-lokalaren beharra?

Eguneroko ohiko jarduerak gauzatzeko zailtasunak izaten dituzte hainbat pertsonak: ohetik jaikitze, dutxatzeko, bainu-ontzira sartzeko, komunitik jaikitze, telefonoa egoki erabiltzeko, egunkaria irakurtzeko, bakarrik jantzeko, mahai-tresnak erabiltzeko. Askok ez dakite jarduera horiek errazago gauzatu ditzaketela laguntza-produktuekin. Hori da erakusketaren helburua: laguntza-produktuak herritarrei erakustea, horien erabileran trebatzea eta norberak baloratzea benetan baliagarriak izan dakizkien ala ez.

Hitzordua hartu behar al du erakusketara gerturatu nahi duenak produktuak ikusteko eta probatzeko?

Ez. Nahikoa da bi lokal horietakoren batera hurbiltzea.

Abenduaren 6an, 7an eta 8an erakusketa-lokala irekita izango dugu. Bestalde, egun horietan, udaletxeko plazan jarriko den stand batean egongo gara produktuak erakusten.

ORTOPEDIA

Herriko barra kalea, 11-14
Tf: 943 835 883
ortopediazarautz@hotmail.es



ZARAUTZ

Astelehenetik ostiralera
10:00-13:00 eta 17:00-20:00
Larunbatetan
10:00-13:00

“Berlingo harresiaren arrastoak egun ere badaude”

Lars Bergner

Ekialdeko Alemanian jaioa.

Han bertan egon arren, distantziatik bizi zuen Bergnerrek mundu bananduaren ikur bihurtu zen harresiaren afera. Milaka kilometrora dago orain, eta gertu sentitzen du gertatutako hura.

OLATZ ARTOLA

Altenburgen jaio zen, 1969an. Bigarren mundu gerra amaitu eta gero, bitan banaturiko Alemania hartan, ekialdeko errepublikan zegoen Bergnerren jaioterria. Alemania 1989an batu zen, duela 25 urte hasi baitzen harresiaren erorketa.

Noiz etorri zinen Euskal Herrira?

Unibertsitate ikasketak amaitu nituenean. Lanean hasi baino lehen praktika batzuk egin nahi nituen, zer bait desberdina, eta gaztelania ikasten ari nintzen, Donostiara etortzeko aukera izan nuen. Urte erdiko kontua zen, hasiera batean.

Eta Donostiatik Oriora?

Egungo nire neska ezagutu nuen eta Orion etxebizitza eros-teko aukera suertatu zitzaigulako etorri ginen hona.

Desberdintasun handiak daude Alemaniako eta Orioko bizimoduaren artean?

Ni herri txiki batean hazi nintzen, beraz, ohituta nago herriko bizitzara. Dena den, eguneroko bizitzan badira desberdintasunak; hemen, kalean bizitza gehiago egiten da.

Gaztelania ikasi izana hona etortzeko arrazoietakoa bat izan zen, eta hemen euskaraz egiten da.

Euskal Herrian urte bete egin nuenean euskara ikasten hasi nintzen, lanean euskaraz hitz egiten baitzuten.

Oso zaila dela diote...

Niri zailena hiztegia egiten zait; gramatika ez, ordea. Logika dauka niretzat, hortaz, formula ikastea bezalakoa da.



KARKARA

Izaten dituzu harremanake euskaraz?

Kalean, batez ere hurrekin parkean nagoenean. Gutxi hitz egiten dut; baina ulertu, guztia entenditzen dut.

25 urte bete dira harresia erori zenetik. Nola gogoratzen duzu hori?

Soldadutza egiten nenbilen, baina frontierako tropekin ez nuen zerikusirik. Harresia bota aurreko eta ondorengo urteetan egon nintzen; urte bakoitzean armada batean. Hogeitaz urte nituen garai hartan eta ez nuen interes berezirik gertatzen zenaz. Informazioa murrizta zen, beraz, ez gene-kien ezer askorik. Gaur egun kontzienteagoa naiz zuzenean bizi nuenean baino.

Harresia bota zuteneko momentuak gogoan al dituzu?

Gogoan dut aurreko egunetan mugimendu handiagoa zegoela. Azaroaren 9ko gauean zaintza zerbitzua genuen eta gure eraikinak Berlin ekialdera zihoan kale nagusira ematen zuen. Muga zeharkatzen jende pila zebilen.

Harresi hark bi mundu banatzen omen zituen...

Beste aldeko bizia ez nuen apenas ezagutzen, telebistan ikusten nuena, besterik ez.

Gaur egun banaketa horren arrastoak ba al daude?

Lehen drastikoagoak ziren arren, egun ere badaude. Desberdintasunak nabari dira bai gizartean, arkitekturan edo kulturean.



Moda desfile arrakastatsua

Hamabi ziren moda desfilean parte hartu zuten Arkupe elkarteko saltokiak. 140 inguru ibiltokira igotako modeloak, herritarrak gehienak. Eta bat bera ere ez, libre geratutako aulkiak. Arraunetxetik kiroldegira pasa zuten desfilea antolatzaileek, jende gehiagorentzat tokia egon zedin. Bete-betea asmatu zuten: eserleku gehienak bete ziren eta giro paregabea sortu.



Herritarrak festaren oinarrian

Donostiatik zuzenean Zarautza arropa erostera, Orion gelditu gabe. Zarautzik ere zuzenean Donostiara, bidean paradarik egin gabe. Arazo horri buelta emateko helburuarekin egin zuten, lehendabizikoz, desfilea. Ingurukoak Oriora erakarri nahi zituzten, baina oriotarrei ere herrian bertan kalitatezko produktuak daudela eta kanpora irteteko beharrik ez dutela erakutsi nahi izan diete.





Ulibarri proiektua euskararen normalizaziorako

2010ean eskola-esparruan euskara indartzeko plan bat jarri zuten martxan Zaragueta eskolan, eta 2014an amaitu da. Eraitza onak eman ditu, baina **euskararen erabilera handitu nahi dutenez** aurten lau urteko iraupena duen beste plan batekin hasi dira.

TESTUA: OLATZ ARTOLA ARGAZKIAK: KARKARA

Normalizazioaren helburua erabilera hedatzea da, jakitetik hitz egitera igarotzea. Euskaral hitzunen kopuruak gora egitea da Ulibarri programaren xedea, eta jomuga horrekin bat egiten du Zaragueta Herri Eskolak. Euskararen erabilaren gaineko kezka dute Zaraguetan. Beren egunerokoa euskararen alde egiten dute, eta horren osagarri, hamaika ekimen eraman dituzte aurrera normalizaziorako bidean. Azkena, Ulibarri programan sartzea izan da.

Edonor aurkeztu, gutxi batzuk sartu

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak bideratzen duen programarako sarrera mugatua da. Edonor aurkez daiteke, libre da, izan eskola publikoa edo kontzertatua. Sartu, ordea, gutxi batzuk egiten dira; eta krisiarekin, are gutxiago.

2008an ireki zizkieten ateak Zaragueta Herri Eskolari. Behin ikastetxearen komunitate osoa hartzen zuen diagnostia eginda, lortu zuten Ulibarri proiektuan sartzea. Azterketan eskola osatzen zutenen ezagupen eta erabilpen maila neurtu zuten. Urte berriarekin hasi eta udaberrian aurkeztu zuten.

Lau urteko perspektiba duen plana

2010ean 2014ra begira jarri ziren Zaraguetakoak. *Zer hobetu nahi dugu? Zer aldatu?* Normaltasunerantz lehen urratsa helburuak finkatzearekin eman zuten. Urtez urte mamitzen joan da lau urteko plana eta aurten, 2014an, bukatu dute.

Orain, berriz ere ebaluzioa egitea egokitu zaie, eta emaitzek plana eraginkorra izan dela diote. Kanpotik lore ugari jaso dituzte, baina etxe barruan kezka ez da uxatu. Gaztelaraz hitz egiten duten asko hasi dira Zaraguetan ikasten, eta bi hizkuntzen artean, askok gaztelera aukeratzen dute. Balantza erdararajoateak arduratu egiten ditu.

Ingurua gaztelaratzearen kaltea

Ez dakienak, ez du erabiliko; eta jatorri erdalduneko familia asko ari da eskolan izena ematen. Giroa erdaldundu egiten du horrek, batez ere gaztelaniaz hitz egiten badute. Besteek hizkuntza hori ere badakitenez, erabili egin dezakete, eta inguru guztia gaztelaratzen da.

Horri buelta emateko beharra ikusten dute Zaraguetan. Haur guztiek, gutxienez, euskaraz hitz egiteko gaitasuna izatear bermatu behar dute; ondoren, ohituretan eragin. Bien artean hautatu behar dutenean euskara aukeratu dezaten lan egin behar dute. Horregatik, aurten ere, plan bat jarri dute martxan.

Ulibarri, erabilera sustatuko duen proiektua

Burutik nahiz bihotzetik, euskara ahora eramateko xedea du programak. Ondorengo lau urteetako planarekin ere erabilera handitzea da eskolakoen desioa. Planaren barruan hainbat lan ildo markatu dituzte: eremu insituzionala, eskolako kideak, beste langileak eta eskolaz kanpoko jarduerak.



“Haur guztiek euskaraz hitz egiteko gaitasunak izatea bermatu behar dute”.

“Eskolaz kanpoko jardueretan libreak dira eta aukeratu egin dezakete”.



2018 urteari begira lau adarreko plana

Eremu instituzionalean aktak eta dokumentuak nola sortu eta idazten diren hartzen da kontuan. Alor horretan berdin jarraitu nahi dute Zaraguetan, bide onetik baitoaz.

Eskolako kideen artean ikasleak, gurasoak eta irakasleak daude. Zaragueta Herri Eskolako haurrak dira irakasleen kezka nagusia. Gurasoek eragin handia daukate haurren ohituretan; euskararekiko jarrera positibo eta aktiboa badute, seme-alabek euskarara joko dute. Gurasoak eredu dira seme-alabentzat, eta, horregatik, berekin hasi dira lanean. Irakasleak erronka berri horiei aurre egiteko etengabeko formakuntza jasotzea ezinbestekoa da, eta buru-belarri dabiltza horretan lanean.

Eskolako beste langileek –zaintzaileek, garbitzaileek– euskara erabiltzea sustatu eta bermatu behar dute.

Azkenik, eskolaz kanpoko jardueretan, zaindu egin behar dute euskararen erabilera. Esparru honek asko kezkatzen ditu irakasleak, ikasleak jada eskolako lau paretatik kanpo baitaude. Gela barruan gidaritza irakasleak daramala diote, eta errazagoa da ikasleek euskaraz egitea. Kanpoan, ordea, libreak dira eta aukeratu egin dezakete.

Ez da erronka erraza Zaraguetan dutena, adin bakoitzean helarazi behar diren mezuak ezberdinak baitira. Adin-tarte bakoitzarekin lanketa zehatz bat egiten dabilta, 2018an datu hobeak izateko.

Merezi duen programa

Ulibarri programan sartzen beste perspektiba bat hartu dutela diote Zaraguetako irakasleek. *Helburuak finkatu eta horiek lortzeko planak egitera derrihortzen zaitu, hau da, bai ala bai kontantzia bat mantentzera*, dio Marije Azkuek. Betidanik egin dute euskararen alde Zaraguetan, baina orain euskari erabilgarri bat daukate eta horri zukua atera nahi diote.

Beste 400 ikastetxe inguru daude programa horretan eta harremana dute elkarrekin. Zarautzeko Berritze Gunea zentroan elkartzen dira eta esperientziak partekatzen dituzte. Besteengandik ikasteko aukera dute, egiten dutenaren berri izatekoa eta beste tokietako proiektuak Zaragueta Herri Eskolara ekartzekoa.

Oro har, aberasgarria egiten ari zaie esperientzia.

MARIJE AZKUE: “IKASLEAK DIRA ARDATZA”

Zer dela eta eman zenuten izena Ulibarri programan?

Betidanik egin dugu euskararen alde eta gure hizkuntzaren erabilpena beti izan da guretzako kezka. Ulibarrik hori lantzen du, baina, batez ere, prestigioa ematen duelako.

Eraginkorra izan da aurrera eramanez duzuen lehen plana?

Datuek hori diote, eraginkorra izan dela.

Halaber, lanean jarraitu nahi duzue beste lau urtez.

Esan bezala, beti aritu gara euskaratik eta euskaraz lanean. Hori ez da berria. Kontua da orain erabilgarria eta lagungarria zaigun euskarri bat daukagula, eta guztion artean adostu eta finkatutako plan bat daukagula. Helburua eta bidea zehaztuta izatea oso garrantzitsua da.

Zer helburu jarri dituzue hemendik lau urtera begira?

Gure lehentasuna ikasleak dira eta beren osagarri garrantzitsua gurasoak direnez, berekin ere lan egingo dugu familia eta eskolen arteko hizkuntza ohiturei begira. Irakasleek ere erronka horiei aurre egiteko, transmisio eraginkorra izateko, uneoro formatzen egon behar dugu.

Ikastaroen bitartez jasotzen duzue formakuntza hori?

Etengabeko formakuntza bat eduki behar dugu, eta oso garrantzitsua da irakasle guztiak batera egitea ikastaroak. Guk gure beharrak ezagutzen ditugu, guk hausnartu behar dugu horien inguruan eta guk bilatu behar dugu irtenbide bat. Elkarrekin egin behar dugu bidean aurrera.

ZENBAKIA

400

Ikastetxe. Ulibarri programaren barruan dauden ikastetxeen kopurua 400 ingurukoa da. Tartean, Lardizabal eta Zaragueta.

OSPAKIZUNA



Zorionak musikari guztiei!

Santa Zezilia musikarien zaindariaren eguna ospatzen da urero azaroaren 22an. Orion asteazkenean egin zuen Danbolin Musika Eskolak, arratsaldeko kalejirarekin eta iluntzeko kontzertuarekin. Musikarien eguna musikarekin alaitu zuten, eta, nola ez, herriko musikari eta musikazale mordoak bildu zen Orioko kaleetan zehar, baita Orioko Kultur Etxean ere.

HANDIK ETA HEMENDIK

“

“Euskararen Plan Estrategikoaren lehentasunak dira euskal hiztunen kontzientziazioan eragitea, euskara ikasteko aukerak hobetzea eta esparru jakin batzuei jarraipen handiagoa egitea.”

Jon Agirresarobe, euskara zinegotzia, Urola Kostako hitza, azaroaren 12an.

“Kirolean jarraituko dut, baina beste era batera. Nire kasara. Bukatu dira profesionalen entrenamenduak. Zurekin egon ondoren, piraguan buelta bat ematera noa”

Oier Aizpurua, OAEko arraunlari ohia, Berrian, azaroaren 11n.



Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Ubegun industriagune, 4

Tel. 943 894 024

Fax. 943 130 144

20809 AIA - ORIO



Azaroko sarituak

Izaskun Arruti Iceta

Anarri opariak

Eba Gastañazpi San Sebasitan

Lore Burdindegia

30€

Arkupeko dendetan gastatzeko



tel/fax: 943 89 00 69

Bizkaia kalea, 4. 20.800 ZARAUTZ



ITURGINTZA_BEROGINTZA
GASA_BAINU ERAKUSKETA

Presupuestak konpromisorik gabeko

XABIER URRETA BIZKAIA

- Instalazio elektrikoak
- TDT antenak
- Atezain automatikoak

60 urte zerbitzua ematen

☎ 943 83 17 74

Arrantzale, 31

20810 ORIO



karkara.com

Eskaintza
berria
Eskaria

Derrigorrez

Martxa honetan, sormena eta autosufizientzia moja eta tailer mekaniko izatera pasako dira; konbentuko sormena eta auto-sufizientzia ibilgailuen ospitala izatera.



Zigor Esoain

Txoko pribilegiatu honetan nire lehen zirriborroa egin nuenetik, sarritan, idazteko grina nondik datorkidan galdetu izan didate. Nire kasuan, irakurtzearen eta idaztearen abentura bata besteari lotuta joan direla esan dezaket. Nire idazteko gogoak irakurtzaletasunak munduratu baitzuen. Eta eskerrak, niretzat barnekoa kanporatzeko formula bikaina baita idaztea. Beraz, nire erreleboa izateko gonbita luzatzen dizuet.

Eta noizko kontua izango da paper gainean tindatua dagoen edozer zokomiatzeko zaletasuna edo jakinmina? Ba ni eta fantzineen, egunkarien eta antzerakoen arteko maitasun harremana, eskola garaia amaitu bezain pronto koka genezake. Lehen xirriek eta lehen orgasmoek ez zuten ikastolako paretarik zelatan.

Zehazki esateko, hitzekin izandako lehen laztana, *derrigor* difunto bihurtu zen egunean eduki nuen. *Derrigor* diktadorea bizi zen bitartean galarazita baikenuen nahi genuen liburua aukeratzea. Klase guztia, agindutako liburua erosi, eta irakurtzera. Eta, jakina, gauzak derrigorrez eta gogoz kontra egiten direnean....

Hainbat koloretako 30 ume, baina azal bakarra aukeran. 30 mukitsu soka berari helduta, denak markatuta dagoen norabidean zuzen. Bakoitzaren gustuak, dohaiak eta zaletasunak sakondu ordez, denak komeni den mugetan konpetitzera behartuak izan ohi gara jaio orduko.

Berdin dio ikasitakoaren erdiak bakarrik balio badizu edo balio dizunaren erdirik ez baduzu ikasi. Denean maila bat ematera behartuta gaude, hurrengo mailara pasa nahi badugu behintzat.

Norberak bere marrazkia marraztu beharrean beste batek marraztutakoa margotzea ohitzen gaituzte. Proiektu batzuen pieza izateko mekanizatzen gaituzte, proiektua egiten irakatsi ordez. Askok ikasteko sortuak dauden kartzeletan, askoz gehiago da irakasten ez digutena. Hainbat gaitan formatu ordez, gutxi batzutan desformatzen gaituzte.

Gure *usba* hiru talderen diskografiaz betetzen digute hogeitaz talderen aniztasunez bete beharrean. Hiru talde horiek kuttunak badituzu zorionak ta bestela izorratu. Martxa honetan, sormena eta autosufizientzia moja eta taller mekaniko izatera pasako dira; konbentuko sormena eta auto-sufizientzia ibilgailuen ospitalea izatera.

TAILER MEKANIKOA AUTO LAN



Pelotari 5, Orio
943 83 00 34

Zure Konfidantzazko
Gertuko Tailerra

Carmen eta Txomin

ARRANDEGIAK



943 83 05 37 / 943 83 27 47



Peru Iparragirre

Udazkenaren azkenetan

Periferikoaren zubipetik igarotzean lehen lapurren merkatua eta orain pobreen merkatua deitzen dutena zeharkatzen dut astelehenean.

Udazkenaren azkenetan, hemen honezkero jarri dituzte Gabonetako argiak. Baina kaleek triste jarraitzen dute, eta kalean jendea ere beti bezain triste dabil, beti bezain pozik.

Orain arte baino arropa geruza gehiago pila-turik soinean. Zuhaitz apurrak ordea biluzten doaz, gertzen zaizkien azken hostoak gorrituz, haize ufadaren batek botako dituen arte. Zerua, zerua zilar kolorekoa da egunotan, zilarrezkoak noizbehinka zerutik erortzen diren tanta hotzak. Eta tximinietatik ateratzen den ke zuria jarraituz begirada goraino iristerako ilundu ohi du. Leihotik begira azkar pasatzen dira orduak. Usoak beti dabil tza joan etorrian, ea nork emango eskutik ahora maitasun apurrik, banku batean eserita edo kale bazterrean zutunik.

Noizean behin beste txori batzuk ere ikusten ditut, baina haien izena ahaztu eta memoria zukutu nahian aurrera jarraitzen dut bidean. Sirena hotsak entzuten dira, urrutian batzuetan, gertuago besteetan. Urdinez jantzitakoak ere sarri ikusten dira auzoan. Astelehenero, periferikoaren zubipetik igarotzean lehen lapurren merkatua eta orain pobreen merkatua deitzen dutena zeharkatzen dut autobusean. Egia esan, iluntze aldera dagoeneko ez da askorik geratzen, bazterretan inork nahi ez zituen gauzen arrastoak, plastikozko poltsa zulatuak eta, euria egin badu kartoi busti zati barreiatuak ere ikus daitezke kristalaren beste aldeko espaloi zaba-lean zehar.

Asteartean berriro bertatik pasatzean etsigarriki hutsik egon ohi dira astelehenean jendez gainezka zeuden bazter-rrak. Nabari da presio handiz isuritako ur, xaboi eta kimiko litroek ez dutela ezertarako balio, ez dute lortzen jendeak eta denborak bertan utzitako ubera ezabatzea. Itxitako pertsia-netako pintadak isilik gastatzen doaz, etxe zaharrak ere azkenetan. Luxuzko dioten artelanak saltzen dituzten dende-tako erakusleiho garbi, argi, eta zainduen parean paperak eskatzen dizkiote norbaiti egunero. Hemen ere fabriketako kea behelainoarekin nahasten da orain. Baina oroitzapenik ez zebrabide eta autoen irrist hotsekin nahasteko.

Udazkenaren azkenetan, denborak aurrera darrai, eta sentipena dut gutako asko arrastaka garamatzala atzetik. Eta ostertzera begira badakit han urrutian –hain gertu– zelaian gainean eraikitzen ari diren etxeorratzak ez direla guretzat izango.

ardoak, urdaikiak, gaztak,
kontserbak, janari prestatuak

etxeraino
eramaten ditugu

KVKV ARRI

943 83 09 84 aita lertxundi, 36
ORIO

mauka

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL - 943. 572083
FAX - 943. 571190
i.asenjo@hotmail.es

INES ASENJO
IBAI ONDO 13
20810 ORIO

**OREKA
FISIOTERAPIA**



943 13 35 37

**TENDINITISAK
LUMBALGIAK
ARTROSIA
ZEFALAK ...**

...

**MASAJE TERAPEUTIKOA
BENTOSAK, AKUPUNTURA
ESKUZKO TERAPIA
OSTEOPATIA**

ARITZAGA KALEA, 11 BEHEA



WWW.FOTORAMIRO.COM
943 831048
610 697 668

LUXARBE
igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu. ☒

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe ☒

Lan txukuna eta merkea ☒

Tfnoa: 943 83 59 00

ODITZ

*Horma zahaleko oinetakoak
gizon eta emakumeentzat*

tel. 943 83 00 89

**ROSANA
ARRUTI**

ARGAZKI ESTUDIOA

Aita Lertxundi, 26
-Orio-
Telf.: 943 835845
fotorosanaarruti@gmail.com



KOLON TXIKI
*endaritagia
jateak*



Herriko Enparantza, 4
ORIO
Tel. 943 83 00 44



Sagasti
LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI

Tel.: 943 13 00 77
Fax: 943 53 71 50
sagasti@sagastileihok.com
Arrantza Kalea, 65
20810 ORIO (Gipuzkoa)



Alustiza Autobusak
Alustiza Bidaiak S.L.



Autobus litera eta 16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
Bidaia eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 28 93/ 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01- 656 78 29 99

Festa onak izan!

JATETXEA

Galerna



Antillako Hondartza 5
20810-Orio-Tel.:943 89 04 16



Sagu-azpikoa
10,00 €



Puzlea 100 p.
18,00 €



Esaldi apainduak



Katilua
13,00 €



Kuxin personalizatuak
26,95 €



Zipristin
INPRIMATEGIA

GABONAK GERTURATZEN ARI DIRA,
ETXEKOEI ZER OPARITU
PENTSATZEN HASTEKO
GARAIA...

ARRANTZALE KALEA 3 BEHEA, ORIO • TELF.: 943 57 87 33 • info@zipristin.com

ITZIAR
kirolak



Tel. 943 83 31 03

KAXAIO
PLADURRA ETA IGELTSUA

Konponketa eta berrikuntza lanak
pladurra eta igeltsuarekin

4josemaria@gmail.com
656 777 574



Oriko estropalariak, Gipuzkoako diputazioan, 1946an irabazitako banderekin.

Asules y koloraus

Oroimenaren kutxa

Ba al dakik zergatik jarri zion Ladis Galartzak bere jatetxe berriari izena erdara hutsez? Horrelaxe galdetu zidan lehengoan lagun batek. Berehala sumatu nion txiste kutsua galderari, baina ezin izan nuen erantzun. Lagundu egin nahi izan zidan, neronek asmatzeko: *Asador Galartza jarri zion*, baina nik ezin igarri eta segidan argitu egin zidan misterioa: *Ez ziolako jarri nahi Galartza erretegia*, re-te-gisilabakondo azpimarratuz, nikondo ulertu nezan. Berehala gogoratu nituen Retegi eta Galartzaren arteko pilota-txapelketako norgehiagoka izugarri haiek eta ulertu nuen txistea.

Anekdotak umoretsuak ondo adierazten du izenak duen indarra, era batean edo bestean esanda gauzak ez direla berdinak, oso desberdinak ere izan daitezkeela, gainera. Frontoietan, oraindik ere apustuak egiten direnetan, honelaxe kantatzen dituzte koloreak, erdaraz, artekari euskaldunek: asules eta kolorau, urdin eta gorri koloreak adierazteko. Orain ni jo lastuko naiz irakurleekin, lehengoan nire laguna nirekin bezala: ezetz asmatu zergatik esaten duten pilota partidetakoa apustuetan *kolorau* eta ez *rojo*? Ezetz! Hona, pista bat: gu txiki ginel, batzuek ez zuten *rojo* esaten. Ez? Oraindik ez? Ba,

gorriak, 1936ko Espainiako gerran, komunistak zirelako, galdu zutenak; eta galdu zutenek, haien izena ezin zen aipatu ere egin, horregatik asmatu zuten *colorado* eufemismoa gorria izendatzeko. Izana eta izena galarazi nahi izan zizkieten gorriei, biak. Nola aldatzen diren denborak: orain, *Viva la roja!* esaten dute espainol sutsuenek.

Frontoian oraindik ere jarraitzen du *kolorau* eufemismoa, izenean; baina, hara, orain, garai batean ez bezala, pilotariak urdinez eta gorritz agertzen dira kantxan, elkarren aurka, 36ko gerran izan ziren bezala; orain, hori bai, arma bakarra pilota dutela.


Estropadetan kolore gehiago dago frontoian baino, ia denak. Ortzadar dotorea izan ohi da arraunlarien festa: urdina, gorria, berdea, txuria, morea, arrosa, marroia eta horia; horriek izan dira aurtengo arraun liga nagusiko koloreak. Gurea, horia. Oraingo gurea, baina ez gure betikoa.

Galderekin segituko dugu: ba al dakizue noiztik den kolore horia oriotarrena? Ez? Ba, 1940tik; ordura arte kolorea zozketatu egiten zen arraun taldeen artean eta zoriak erabakitzen zuen estropalariak soinean eramango zuten kolorea. 1940an, Jose Mari Urdangarin *Txatoren* Oriko koadrilak zergatik aukeratu zuen hori kolorea erraza da asmatzen. Orio eta Oria kontuan hartuta, erraza, ezta?

Kolore horia gurea dela esan dugu, gurea bai, baina ez gu guztiona; aniztasun handia dago oriotarren arraun-atxikimenduan ere: horia, berdea, urdina, morea... Normala da, ulergarria, mutilen erbesteratzeak ekarria. Baina hori ez da berria, oso aspaldikoa baizik, Orio aspaldi hasi zen arraunlariak esportatzen eta kolore anitzez janzten. Aspaldi honetan inportatzen ere ari da traineru oriotarra, mutilak eta neskak gainera. Garai berriak: berdintasunean galtzen, koloreen eta hizkuntzen aniztasunean irabazten. Kolore festa. Ori ok eta!

INAKI ITURAIN

Komun publikoak Orioko herriko plazan



Udal teknikariak egindako zirriborroetako bat, plazako komunaren planoak. ORIOKO UDALA

2014 urteko ekainean Bilduren eskaera jaso zuen udal teknikariak; herriko plazan komun publikoa jartzeko asmoa zutela eta proiektuaren zirriborroa egiteko zioen eskakizuna.

Orioko Udalak bi espazio ditu plazan, bi almazen. Bata, udaletxearen atzean eta bestea elizara doan aldaparen ondoan. Bigarren honetan, plazara ematen duenean, egin nahi dute komuna.

10.500 euro inguruko kostua

Udal teknikariak almazen batean ala bestean egiteko aukera ikusita, bietako planoak egin zituen.

Kostua, gutxi gorabehera, 10.500 euro ingurukoa izango da. Hori, komun normala eginez gero, automatikoki garbitzen direnak egitea garestiagoa baita. Dena den, komun horiek ere badituzte hainbat abantaila.

Bildu: Herritarren eskaria

Adineko jendea hurbildu zaigu plazan komuna eskatuz. Esaterako, elizatik bueltan estu samar ibiltzen omen dira. Herri erdian ez dago komun publikorik eta tabernen esku utzi behar ote dugu zerbitzua eskaintzea? Beste eskari askok ez dute soluzio errezik, plazan komuna jartzeak bai. Lekua badago, egoki askoa. Inbertsioa garai zailetan udalak bere gain hartzeko. Batzordean proposamena egingo dugu.

Orain: Plazan komuna behar da?

Udaletxean mila egun baino gehiago pasatuta Orain taldeari ez zaio inor iradokizunarekin zuzendu, ez du kexarik entzun ezta eskaerarik jaso. Udaletxeko komunak eta zahar babeslekukoak izaera publikoak dute eta plazako eremuan, taberna asko daudenez, komun pila bat dago. Gure taldearen ustez Orion egin behar den hurrengo komun publikoa, eskaera aspaldidanik jasota dagoelako, Dikeko pasealekuan da.

Mantenu gastu handia

Komun normalek garbiketa handia eskatzen dute. Behin eta berriz erabiltzen badira, etengabe garbitu behar dira. Udaleko garbitzaileen zereginetatik kanpo egongo litzateke komun hauen garbiketa, hortaz, kostua handituko luke mantenuak.

Komunak automatikoki garbitzen direnak jarritz gero, autopista azpian dagoena bezalakoa, hasierako kostua handiagoa izango da. 25.000 euro ingurura igoko da obraren balioa, baina, geroa begira, mantenua merkeagoa izango da. Astean hirutan garbitzearekin nahikoa da, berak automatikoki egiten baitu garbiketa, uneoro.

Dikeko partean komunaren beharra

Zaharren babeslekukoek Dikeko partean komuna izateko beharra ikusten dute. Hortaz, automatikoki garbitzen den komuna jartzeko eskaria egin zuten, eta 2011tik –gutxienez– aurrekontuen partidan jasota egon da.

Dikeko parkearen ingurua domeinu eremuan dago, hau da, Kosta zuzendaritzarena da. Horrek prozesua geldotu egiten du eta zaildu egiten du obra.

Hori dela eta, eremuaren jabetza guztia ez dute Kosta zuzendaritzaren esku geratzea nahi, helburua lortzea errazagoa izateko.

EAJ: Haserre KARKARekin

KARKARAK antolatzen duen txoko hau, geure haserrearen adierazteko erabili nahi dugu. Txoko honetarako 12 aldiz aurkeztu dugu gaia bat eta inoiz ez da aukeratu izan. Ale honetarako 4 gai proposatu zitzaizkigun, 3 aurretik guk proposatutakoak, eta kasualitatea, laugarren hori atera! Karkarak honetarako erabili dituen irizpideak ez zaizkigu justuak iruditzen, beti alde berdinerara jotzen dela iruditzen zaigu.

■ LARDIZABAL HERRI ESKOLA

Txangoa Xabier Alberdirekin



Urriaren 31n, eskolako inguruan barrera txangoa egin genuen Xabier Alberdi historialariarekin. Aiako herriak eta Euskal Herriak garai batean itsasorekin izan genuen harremanaren berri eman zigun. Ontzigitzarako zuhaitzak nola prestatzen zituzten, arrantzaleentzat sagardoa eramateko sagastiak jarri zituztela, burdinolak izan zuten garrantzia... azpimarratu zizkigun. Oso txango interesgarria izan zen eta asko ikasi genuen.

■ ZARAGUETA HERRI ESKOLA

Konposta prozesua ezagutzen



Konposta eskolara programaren bitartezurten konpostaren prozesu guztia nolakoa den aztertzen ari dira LH3 eta LH 4ko ikasleak. Plastikozko botila handi batzuk erabiltzen dituzte horretarako. Bertan, prozesu guztia jarraitu daiteke. Nahiz eta konposta prozesua luzeagoa izan, ikastaro honetan hilabeteke epean prozesu guztia ikusi ahal izango dute. Ikastaroa bukatzean ikasleak maisu bihurtuko dira eta besteek azalduko digute ikasitako guztia.

■ ORIOKO HERRI IKASTOLA

Teloia ireki, eta han ageri!



Azpeitira joan gara DBH2ko ikasle eta irakasleak hainbat ikastetxeen antzezlanak ikustera. Ohore bat izan da esperientzia hau bizitzeko aukera izatea. Ederki pasatu dugu zenbait istorioetako pertsonaia apartekin eta gure lagunen gaitasunaz liluratuta geratu gara, maskarak kendu eta euren nortasuna erakutsi baitigute. Zoriontzekoa da, Gurutze Eizmendik eta bere ikasleek egindako lana guk momentu atsegina pasa ahal izateko.



Izaro Gonzalez

Mugikorrak eta gazteak

Gaur egun mugikorrak oso kaltegarriak izan daitezke. Denbora luzez egotea mugikorrekin arazoak sor ditzake. Oso arraroa da 12 urte baino gehiago dituen pertsona batek, mugikorrik ez izatea. Gazte gehienek ez dakigu mugikorra asko erabiltzeak zer arazo ekar ditzakeen.

1984. urtean mugikorra merkatuan jarri zenetik, gazte askorentzat ezinbesteko gailua bihurtu zaigu. Gainera, sare sozialen aplikazioak ere deskargatu ditzazkegu eta interneten gazte askok arazoak ditugu sare sozialekin eta sozialetan.

Arazo horien aurrean, gazteei galdera asko etortzen zaizkigu burura: zergatik ez digute esan zer gertatu daitekeen? Zer ahal dut egin orain? Edo, zergatik saltzen dizkigute mugikorrak hainbeste arazo sortzen badizkiete gazteei?

Nahiz eta, gazte asko eta asko horren jakitun izan, berdin jarraitzen dugu: besteenganako inongo sentipenik erakutsi gabe.

Zergatik saltzen dizkigute mugikorrak hainbeste arazo sortzen badizkiete gazteei?



Zarautz

Hileta Zerbitzuak

> Hilerrien kudeaketa
> Hileta zerbitzu orokorrak
> Zerbitzu iraunkorra



Harrespil

Hilerri Zerbitzuak



Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxa: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net

edarteia
ANTILLA
juletaia

Abeslari kalea, 2 - Tel. 943 83 23 09

URANGA

burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskalnet.net
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

ITSASADARRA, S. L.

Jose Angel Iradi Udabe

aseguru artekaria
finka administratzailea
gestoria
enpresa berriak sortzeko diru laguntzen kudeaketa

Tel 943 89 40 29 Fax 943 83 54 98 itsasadarra@itsasadarra.com
Ibai Ondo 4, behea. 20810 Orio

PERTSIANAK

AKO MAZ

Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

LEUNDA OKINGEDIA

ORDUTEGIA

ASTELEHENETIK - LARUNBATERA 16ANDE ETA JAI-EGUNETAN

2GURPIL

Baxoalde 2 - 3 · 20810 Orio (Gipuzkoa)

Tel 943 835 980 W www.2gurpil.com E bigurpil@hotmail.com



AIRIDATZA modas

Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO

Lizaso dekorazioa

Tf: 943 83 07 84

Faxa: 943 24 87 15

Eusko Gudari, 48



IGLESIAS SARRAILAGILEAK

24 ORDUKO ZERBITZUA

Javier Iglesias Fernández
637 723 308
iglesiascerrajerros@yahoo.es
20810 ORIO

- ATEAK IREKITZEN DITUGU
- SARRAILA-ZILINDRO ALDAKETAK
- ATEAK IXTEKO MALGUKIEN ALDAKETA
- KOMUNITATEENTZAKO ZERBITZUA



ANORGA TXIBI S.L. KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak · beira bikoitza
· segurtasun beirak · dutxa-itxiturak eta irristailuak
· ispiluak · barandak · kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Xabier Lizaso, musika eta hitzen artean

Kritika Xabier Lizaso

Piano-jotzailea, azaroaren 31n kontzertua eskaini zuen Orioko Kultur Etxean.



Xabier Lizaso pianoa jotzen. GAINZURI

Pasa den ostirala ahaztezin bilakatzen diren egun berezi horietako bat izan zen. Jende asko elkartu ginen, piano eta piano-jotzaile handi baten inguruan, une majiko batzuk dastatzeko prest.

Ikusleak musika eta kontuz betetako garaietara eraman zituen Bach eta Beethovenen arteko bidaian. Une ezin hobekin hasi zen bidaia hau, entzuleak arnasari eutsiz, Xabierren eskuek modu goxo eta sentiberan Goldberg Variazioak jotzen zituzten bitartean.

Mozarten *Turkiar Martxa* eta hain ezaguna den *Para Elisa* ondoren, Beethovenen *Waldstein* sonata indartsu eta kaltetatutako ornitutako soinuarekin jo zuen. Xabier Lizasok eskeini zuen obraren ulermenaren bitartez entzuleak arreta harrapatu zuen. Eta horrelaxe geratu ziren entzuleak, aukietatik mugitu ezinik, kontzertua bukaerarik gabe jarraitzeko zain. Ahaztezina, beste hitzik ez dago...

LORETO ARAMENDI

Sushia bezain gordina, Wasabia bezain pikantea.

Kritika Bi bala

Musika diskoa. Bi bala musika taldearen disko berriaren -Wasabi- kritika.



Wasabi, Bi Bala taldearen azken diskoko portada. BI BALA

Bi bala, bala bat balitz bezala. Hala sartu zaizkit kantututako letrak. Talde honen buru, bi bertsolari: Iñaki Gurrutxaga eta Aitzol Barandiaran. Horiekin ez da harritzekoa letrek duten pisua, eta, ironiaz josita, alde guztietara egiten dute tiro.

Hala ere, ez pentsa bertso sorta musikatu batzuk aurkituko dituenik hau entzuten duenak. Disko honetan erraz entzuten diren zortzi kanta daude.

Azaleko argazkiak laburbiltzen du dena. Wasabia bezain pikanteak dira letrak eta sushia bezain gordina musika. Hori bai, mimo handiz zainduta daude xehetasun guztiak, presentzian irabazi dezan.

Erritmo aldaketak gustatu zaizkit, baita kitarra eta ahotsa ere; une ezberdinetan arpegioekin lasaituz, akordeekin indartuz edo tentsioan mantenduz. Bestalde, Iñakiren ahotsa koroetara mugatuko nuke. Txistu joko dizuegu!

IGOR SALSAMENDI



Hezkuntza

Orioko Curriculumeko kideak Eusko Legebiltzarrean izan dira

Orioko Curriculum Sortzen Kultur Elkarteko Ruben Iglesias eta Xabier Gaiton Eusko Legebiltzarrean izan ziren, herrian lan-tzen ari diren hezkuntza proiektuaren berri ematen. Azaldu digutenez, alderdi guztietako batzordekideen harrera zuzena baino gehiago izan zen, adeitsua eta arretatsua, izan ere. Saiotan proiektuaren nondik norakoak azaldu zituzten.

@karkara.com/orio/1416489284855



HASI TXIOKA

#sanikolasak14
traola erabilita
txiokatu festetan!



Gizartea

Obrak Anibarko Portuko geltokian

Anibarko Portuko autobus-geltoki atzeko mendia ezegonkor dago. Sarritan luiziak izaten dira, azken urteotan batez ere. Arazo horri irtenbidea bilatzeko lanak egingo ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak. Lan horiek 2015eko urtarrilaren amaieran bukatzea aurreikusten dute. Obrak irauten duen bitartean errepi-deko errail bat itxiko da eta semaforo baten bidez erregulatuko da zirkulazioa.

Kirola

Sara Iparragirre emakumezkoen ligan

Eskola kirolean egin zuen bere lehen saskiratzea eta ordutik saskibaloari lotua dago Iparragirre. Orion hasitako bidean aurrera egin du, Zarautzera joan zen eta orain Donostian dago, Donostia Basketeko jokalaria da. Autonomikoen lehen ligan jokatzen du senior mailan, baina emakumezkoen ligakoekin ere entrenatzen du. Berekin jolasteko aukera izan du eta esperientzia polita izan da oriotarrarentzat.

Gizartea

Aiestaran alkatea hil da

Jesus Maria Aiesteran Orioko alkate izan zena hil zen azaroaren 8an, larunbatarekin. Bi egunera, azaroaren 10ean, Orioko San Nikolas parrokiaren haren aldeko meza jendetsua egin zen. Arratsaldeko 19:30ean izango zen eta lagun ugari joan ziren. Orioko Udalak doluminik sentituena helarazi zizkien haren senide eta lagunei.

Julen San Sebastian @JulenXanxe · aza. 6
Plazer haundi bat izan da zuek bezelako artistak ezagutzia! besarkada haundi bat kuadrilla eta segi horrela!

Jon Garate retweeted

Jon Urbieto @jonurbieto · aza. 10
.@ZuekHor nola egiten den jakin nahi dezuela? Hona hemen @jongarate1 eta konpainiak eginiko bideotxo bat. vimeo.com/111301239
Earra!

Ander Atorrasagasti @AnderPoropo · aza. 11
22minututan @berritxarrak ek Urtarrilak 10en emango dun kontzertuako sarrerak agortuta... 3erosi ditut nik behintzat!@xabimurua k lortu ote?

Mirari Arriola @Mirari22 · aza. 12
Nazka sentitzea lengusuari jostailuen panfletoa kendu eta, oaindik ere, daukaten eduki sexista ikusita!



Politika

Eraikinaren erabilera auzotarren esku

Aiako auzo eskola izan zen eraikuntzaren etorkizuna zein izango den erabakitzeko elkartu ziren Aiako alkatea eta Andatzako auzotarrak. Duela bi urte arte eskola izan zen eraikina baina, behin funtzio hori alde batera utzita, eraikina medikuaren kontsultetarako bakarrik erabiltzen da. Etxeetara paperak bidali dituzte, beren proposamena idazteko. Etxebizitza bakoitzak proposamen bat aurkeztu ahal izango du eta guztiak azaroaren 30ean bilduko dira, eskolako eraikinean.

@karkara.com/aia/1415708453479



Kultura

Gure Bazterrak, ekiteko prest!

Hiru gazte, bost musika talde eta eszenatoki bat. Labur esanda, hori da azaroaren 29an Orion izango dena. Arratsaldeko 18:00etan hasita, gauerdia arte, Karela kiroldegian. Grises, John Berkhout, Giranice, Skasti eta Mobydick. Bostak euskaldunak, bostak ezberdinak, bostak indartsuak. Folketik skara; rock, psikodelia, instrumental, pop eta indietik pasata. Bost proposamen, bost izate, bost puntako talde. Hori guztia, 10 euro ordainduta.

@karkara.com/orio/1416243224088

Euskaraz bizi-bizi jardunaldiak bideoan bilduta



@karkara.com/aiaorio/
1416238014897



Santa Zezilia musikarien eguna kalejiran ospatzen



@karkara.com/aiaorio/
1416323593485



Urdaneta auzoko festetako giroa iruditan



@karkara.com/aia/
1415627246770



AZOKA

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Salgai

■ 50 metro karratuko pi-sua salgai edo alokagai erdigunean, Donibane kalean. Bi logela, igogailua, 20 metroko terraza. Sarrera pribatuarekin iturbide kaletik. Tf: 609086436 -Fernando-.

■ Garajea salgai Orioko Goiko Kalean. Tf: 652727144.

■ Estreinu gabeko garbigailu berria salgai, 5kg-ko kapazitatea du. Prezioa 100€. Kontakturako telefonoak 652754699 / 637392862.

■ Pisua salgai Abaromendin. 61 metro karratu eta 140 metro karratuko jardina. Bi logela, komuna, sala eta sukaldea. Erabat hornitua. Tf: 637419729.

■ Pisua salgai edo alokagai Orion, Kale Nagusian. 2 logela, sukalde-egongela eta komuna. Alokairua 500€, salmenta 140.000€ Interesatuak deitu 661 679 691 telefono zenbakira -Paki-.

Lan eskariak

■ Emakume euskalduna lan bila. Umezaintza, pertsona nagusiei laguntza, propaganda banaketa... Tf: 662064983 -Marian-.

■ Bertako emakumea lan bila. Portal eta ofizinen garbiketan esperientzia, adinekoen zaintzan titulua. Tf: 617112916.

■ Neska oriotarra, umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edota klase partikularak emateko prest. Esperientziaduna. Tf: 671743088. Ainhua.

■ Esperientzia eta erreferentzia dituen neska lan bila dabil. Haurren nahiz helduen zainketa, baita beste edozein lanerako prest ere. Paperak araututa. 664681908

■ Arratsaldetan lana egiteko prest dagoen emakumea. Etxeko lanak eta ume nahiz helduen zaintza. Interesa duenak deitu dezala 653508251 telefonora.

■ Goizez etxeko lanak egiteko emakume bat behar dut, urte guztirako. Ingelesa jakitea garrantzitsua. 669781963.

■ Lanerako gogoia eta esperientzia daukan pertsona naiz, garbiketa eta zaintza lanak egiteko prest dagoena -helduei nahiz umei-. Interesatuak 647059103 telefonora deitu dezala. -Selvia Paredes-.

Alokagai

■ Logela alokagai. 100 metro karratu, leku onean. Tf: 657535299.

■ Lokala alokagai. 38 metro karratu, komuna eta sukaldearekin. Gazteen-tzako aproposa, plazoletabaten ondoan. 635731708 -Oscar-.

■ Baserri bat alokagai As-teasun, bizitzeko moduan. Tf: 615790965.

■ Gizonezkoa lanerako prest. Baimen guztiak ditut, eskorga eta zubi-garbiarenak barne. Lanarriskuen prebentzio kurtsoa eginda. Tf: 657535299.

Auto-partekatzea

■ Orio-Miramón teknologia parkea joan-etorrirako autoa partekatzeko prest. 08:15ean Oriotik abiatu eta 13:30ean itzuli. Tf: 655702613.

Galdutakoak

■ Urrezko pultsera galdu dut. Katezkoa eta txapa batekin, "Malen" idatzia dauka txapak. Ikastolako pergolan galdu zen maia-tzaren 8an, 18:45ak alde-ra. Tf: 680572798 -M. Angel Albeniz-.

ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	11:57 eta	05:27 eta 18:10	
02	00:39 eta 13:05	06:38 eta 19:13	
03	01:39 eta 14:03	07:39 eta 20:08	
04	02:31 eta 14:54	08:32 eta 20:55	
05	03:17 eta 15:40	09:20 eta 21:38	
06	03:59 eta 16:21	10:03 eta 22:19	
07	04:39 eta 17:01	10:44 eta 22:57	
08	05:17 eta 17:38	11:23 eta 23:35	
09	05:53 eta 18:15	12:02 eta	
10	06:30 eta 18:53	00:12 eta 12:41	
11	07:08 eta 19:33	00:51 eta 13:22	
12	07:49 eta 20:17	01:33 eta 14:06	
13	08:35 eta 21:09	02:18 eta 14:55	
14	09:30 eta 22:10	03:11 eta 15:51	
15	10:34 eta 23:18	04:13 eta 16:54	
16	11:42 eta	05:20 eta 17:57	
17	00:23 eta 12:45	06:24 eta 18:54	
18	01:19 eta 13:39	07:20 eta 19:44	
19	02:07 eta 14:27	08:09 eta 20:30	
20	02:50 eta 15:11	08:55 eta 21:13	
21	03:32 eta 15:54	09:39 eta 21:56	
22	04:14 eta 16:36	10:22 eta 22:38	
23	04:56 eta 17:20	11:06 eta 23:21	
24	05:39 eta 18:05	11:51 eta	
25	06:24 eta 18:52	00:06 eta 12:38	
26	07:13 eta 19:43	00:54 eta 13:28	
27	08:06 eta 20:39	01:45 eta 14:22	
28	09:05 eta 21:44	02:42 eta 15:22	
29	10:13 eta 22:56	03:46 eta 16:29	
30	11:28 eta	04:58 eta 17:40	
31	00:10 eta 12:42	06:12 eta 18:48	

ZAINTZAKO BOTIKAK

ABENDUA

- Ilean, Azaldegi.
- 2an, Larrañaga.
- 3an, Mutiozabal.
- 4an, Etxeberria.
- 5ean, G. Artiñano.
- 6tik 12ra, Lasa.
- 13 eta 14an, Mutiozabal.
- 15ean, Iriarte.
- 16an, Etxeberria.
- 17an, G. Artiñano.
- 18an, Mutiozabal.
- 19an, Azaldegi.
- 20 eta 21ean, Iriarte.
- 22an, Etxeberria.
- 23an, Larrañaga.
- 24 eta 25ean, Zulaika.
- 26an, Iriarte.
- 27 eta 28an, Larrañaga.
- 29an, Zulaika.
- 30ean, Azaldegi.
- 31n, G. Artiñano.

Azaldegi: Urdaneta kalea, 8.

943133183 Zarautz

Etxeberria: Gipuzkoa kalea, 17.

943832398 Zarautz

Mutiozabal: Kale Nagusia, 12.

943832970 Zarautz

Larrañaga: S. Frantzisko, 16.

943133814 Zarautz

Lasa: Herriko plaza.

943830936 Orio

G. Artiñano: Zigordia kalea, 17.

943134019 Zarautz

Iriarte: Zinkunegi, Pilartxo

Enea, 943132983 Zarautz

Zulaika: Bizkaia kalea, 41

943133994 Zarautz

SARASUA ERRETEGIA

Plater bereziak:

-Arrain zopa

-Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29 **ORIO** Tel.: 943 83 00 05 / 943 13 25 32

Ile apaindegia

MARIJO

Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8-bajo

Tel. 943 13 47 29

Orio



Sanikolasak ate joka datoz

Egitarau oparoa osatu dute herriko eragile eta herritar talde batek. Abenduaren lehen ostiralean hasi, eta astelehenera arte luzatuko da.

Ekintza ugari egongo dira lau egunetan zehar, adin-tarte eta gustu guztientzat. Festaren parte izan, parte hartuz!

Orio

Musika

- Azaroaren 29an, Gure Bazterrak musika jaialdia, 18:00etan hasita, Karela kiroldegian Taldeak: John Berkhout, Giranice, Grises, Skasti eta Mobydick.
- Abenduaren 19an, Lau esku, lau hanka baina bi buru organo-emanaldia, Xabier Lizaso eta Loreto Aramendi, 22:30ean, elizan.

Dantza

- Abenduaren 26an, Herribil dantza emanaldia Harribil Dantza Taldearen eskutik, 22:00etan, Karelana.

Euskararen eguna

- Abenduaren 2an, Euskaraz Gazteliteratur lehiaketaren sari banaketa, 19:00etan, Kultur Etxean.
- Abenduaren 2an, Erdaldunberrien kluba antzerkia, literatur sarien ondoren, Kultur Etxean.
- Abenduaren 3an, Zaragueta Herri Eskolan eta Orioko Herri Ikastolan egun osoko festa.
- Abenduaren 3an, liburuen elkartrukea, 15:30etik 16:30era Zaraguetan, 17:00etatik 18:00etara herriko plazan.

Jostailuen elkartrukea

- Abenduaren 12an, jostailuak jasotzeko azken eguna, 17:00etatik 19:00etara, Kosta tailerrean.
- Abenduaren 14an, jostailuak trukatzeko eguna, 10:30etatik 15:00etara, plazan. Eguraldi txarra eginez gero, frontoian.

Tailerrak

- Abenduaren 20an, Orgonita tailerra, 11:30ean, herriko plazan.
- Abenduaren 20an, Mandalara tailerrak umeei, 16:30ean, Kultur Etxean.

Abenduak 24

- Haurren kalez kaleko saioa. Ikastolako, eskolako, Danbolin Musika Eskolako haur, irakasle eta gurasoak kantari. 10:45ean, Ikastola ondoko plazan hasita.
- Tonbola plazan, Ikastolako DBHko ikasleek antolatuta, 11:00.
- Olentzeroren eta Maridomingiren etorrera, Arkupe, Txurumuski, Orioko Herri Ikastola, Zaragueta Eskola eta Udalaren eskutik, 17:00etatik aurrera.

Hitzaldia

- Abenduaren 19an, Astrologia hitzal-

dia, 19:30ean, Mandalara aretoan.

Erakusketa

- Abenduan, Orioko argazki zaharren erakusketa, Salatxo tabernan.

Kirola

- Azaroaren 30ean, Txakurkros solidarioa, Antilla Hondartzan. 9:00etan izen ematea eta 11:00etan irteera.

Aia

Bilerak

- Azaroaren 30ean, auzo-eskolaren eraikinaren erabilera-proposamenak, 12:00etatik 12:30era, Andatza auzo-eskolako eraikinean. Ondoren, 12:30ean, bilera egingo da proposamenetatik bozkatuena zein den jakin eta lanean hasiteko.

Kirola

- Azaroaren 29an, Euskadiko Goma gaineko 4 x 4 Sokatira Txapelketa, 17:00etan, frontoian.

Euskararen eguna

- Abenduaren 3an, Lardizabal Herri Eskolan egun osoko egitaraua.

